# 1.993


LEITZA 93
Tiburzio Donearen
Festak
Abuztuak 10-15

## AURRERA, K.E.-KO BAZKIDEEK



Herritar eta bisitari guztiei
JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE

## LEITZAKO UDALAK



JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE
Herritar eta bisitari guztiei

## LEITZA, 1993.URTEKO PESTAK



Pestak



## LEITZAR ETA BISITARI GUZTIEI AGURRA

Herriko pestak heldu zaizkigu eta aukera erabili nahi dut Leitzar guztiei agurra eskeintzeko.

Urte guztia hortxe dago arazoari eta kezkari erantzuna emateko, eta pestak berriz izan ditezela herritar guztien elkartasunarekin eta euskal ohitura zaharrei eutsiaz alaitasunezko egun eder batzutan murgiltzeko.

Beste urteetan bezela, egun hauetan autoa ahal den gutxiena erabiltzea eskatzen dugu, herri barruan leku gehiagorekin ibiltzeko aukera izan dezagun.

Leitzar eta kanpotar guztiei pesta zoriontsuak opa dizkizuegu!!!

ALKATEAK

## SALUDO A TODOS LOS LEITZARRAS Y VISITANTES

Nos llegan las Fiestas Patronales y quiero aprovechar la ocasión para brindar a todos los Leitzarras un cordial saludo.

Ahí tenemos todo el año para preocupaciones y problemas, y que las fiestas sean con la unión de todos y manteniendo las viejas costumbres vascas unos días excelentes para todos.

Como en años pasados, queremos recordar que conviene hacer el menor uso posible del coche durante estos días, para así disponer de más espacio libre en el casco urbano.

¡¡¡Os deseamos felices fiestas a todos los Leitzarras y visitantes!!!

EL ALCALDE

# Abuztuak 1, IGANDEA



• **Goizeko 9etan:** Herri guztian zehar pestetako egitarauen banaketa eginen da. Leitzako gazteak trikitilari, txistulari eta Artadi txarangaren laguntzarekin etxez-etxe eskean ibiliko dira.

Gogoan izan dirua kaxa giltzatua dutenei bakarrik eman diezaiekezuela.

• **Arratsaldeko 4,30etan:** Leitzako Lan Kide Aurrezkiaren laguntzarekin antolaturiko TRUK eta MUS txapelketa azkarra izango dugu. Hau herriko "karrapean" burutuko da.

Jokoan ari garen bitartean, herriko trikitilariek beraien doinuarekin alaituko gaituzte.

• **Arratsaldeko 7,30etan:** Dantzaldia plazan KOXKORRENA taldearekin.

• **Gaueko 11tatik aurrera:** Dantzaldia plazan KOXKORRENA taldearekin.





Pestak

## Abuztuak 8, IGANDEA

# UMEEN EGUNA

• **Goizeko 8etan:** Diana txistulariekin.

• **Goizeko 9etan:** Zaldi txikiak (poniak) plazan.

• **Goizeko 10,30etan:** Meza Nagusia. Korporazio gaztea, literatur lehiaketan irabazle izan diren haurrek osatuko dutelarik. Hauek 10,15etan, Udaletxean bilduko dira.

• **Goizeko 11,30etan:** Umeentzat jokoak:
– Sostor apustua.
– Zaku saltoa.
– Aulki harrapaketa...



• **Arratsaldeko 4etan:** Txirrindulariak.

• **Arratsaldeko 5,30etan:** Zaldi txikiak plazan.

• **Arratsaldeko 6,30etan:** Aurrerako dantzari txikien saio bikain bat ikusi ahal izango dugu.

• **Arratsaldeko 7,30ak aldera:** Herriko trikitilarien saio berezi bat.

• **Arratsaldeko 8,30etan:** Kalejira Artadi txarangarekin.



• **Gaueko 9etan:** Dantzaldia BASAJAUN taldearekin.

• **Gaueko 12etan:** Berriz ere, BASAJAUN taldea izango dugu.



Leitza

## Abuztuak 10, ASTEARTEA

## PESTA BEZPERA



• **Goizeko 10etan:** Txirrindulariak. Hauek lehenik zirkuito batean ibiliko dira, eta ondoren ekipoka "kontra relojean".

• **Eguerdiko 1,30etan:** Jubilatuen bazkaria.

• **Arratsaldeko 6,30-etan:** Pestei hasiera emanez, ezkila jotzea eta etxafuego botatzea.

Ondoren, Plazaolako azalaren lehiaketan irabazle izan denari, Alkateak saria emango dio.

Segituan buruhaundi, txistulari eta Artadi txarangaren laguntzarekin kalejira herrian zehar.



• **Arratsaldeko 7,30etan:** Dantzaldia GAUBELA taldearekin.

• **Gaueko 12etan:** Dantzaldia GAUBELA taldearekin.

Pestak

# Abuztuak 11, ASTEAZKENA

## TIBURTZIO DONEAREN EGUNA

• **Goizeko 7,30etan:** Diana:

– Txistulariek urteroko "plegariarekin" jarraituko dute.

– Gaiteroak: Alde Zaharretik hasiko dira ondoren Manuel Lasarte auzoa egiteko, Huarte Gotzaia kaletik Jose Deunaren plazara etorriko direlarik.

• **Goizeko 9,30etan:** Entzierroa eta zezenak plazan.





• **Goizeko 10,30etan:** Meza Nagusia. Udaletxeko korporazioa Aurrerako Ezpata dantzariekin joanen delarik.

• **Eguerdiko 12etan:** Aurrerako Ezpata dantzarien saio paregabe bat ikusiko dugu.

Hauek Fermin Azpiroz omenduko dute.

• **Ondoren,** Leitzako pilota eskolak antolaturiko pilota partidua ikusi ahal izango dugu.

• **Arratsaldeko 5,30etan:** Zezenak plazan.

• **Arratsaldeko 6,30etan:** Zaldi doma plazan. Hau "Hípica Ulzamak" eskeiniko digu.

• **Arratsaldeko 8etan:** GAUBELA taldea.

• **Gaueko 12etan:** Dantzaldia GAUBELA taldearekin.



Leitza

# Abuztuak 12, OSTEGUNA



- **Goizeko 7,30etan:** Diana:
  - Txistulariek betiko kaleak egingo dituzte.
  - Trikitilariek: Patxi Arrazola eta Amazabal kaleak alaituko dituzte.
- **Goizeko 9,30etan:** Entzierroa eta zezenak plazan.
- **Goizeko 11,30etan:** Herri Kirolak:
  - Harrijasotzaileak:
    - PERURENA.
    - SARALEGI.
    - GIBITEGI.
    - GOENATXO.
- **Arratsaldeko 5,30etan:** Zezenak plazan.
- **Arratsaldeko 6,30etan:** Aurrerako Dantzarien saio ezin hobe bat plazan. Ondoren bonba japoniarrak.
- **Arratsaldeko 8retan eta gaueko 12etan:** Dantzaldia JOSELU ANAIAK taldearekin.






## Abuztuak 13, OSTIRALA

- **Goizeko 7,30etan:** Diana:
  – Artadi txarangak, Alde Zaharra, Manuel Lasarte, Huarte Gotzaia eta Jose Deunaren kaleak igaroko ditu.
  – Txistulariek berriz, betiko kaleak egingo dituzte.
- **Goizeko 9,30etan:** Entzierroa eta zezenak plazan.



- **Goizeko 11,30-etan:** Musika banda zoragarri bat plazan.
- **Arratsaldeko 5,30-etan:** Zezenak plazan.
- **Arratsaldeko 7etan:** Umeentzat herriko eskoletan:
  – KARTS-ak eta HAIZEZKO GAZTELUA.
- **Arratsaldeko 7,30-etan:** Pilota partido profesionalak Amazabal pilota lekuan.
- **Arratsaldeko 8retan eta gaueko 12etan:** Dantzaldia TRAKETS taldearekin.





Leitza

# Abuztuak 14, LARUNBATA



- **Goizeko 7,30etan:** Diana:
  – Gaiteroak, Patxi Arrazola eta Amazabal auzoak esnatuko dituzte.
  – Txistulariak, denok dakigun auzora joango dira.
- **Goizeko 9,30etan:** Entzierroa eta zezenak plazan.
- **Goizeko 11ketan:** Bertsolariak herriko plazan:
  – Lizaso.
  – Murua.
  – Egaña.
  – Sarasua.
  – Mañukorta.
- **Eguerdiko 12,30etan:** Animatzen zareten Leitzar guztiek prestaturiko kalderetea plazan.
- **Arratsaldeko 5etan:** Zezenak plazan.
- **Arratsaldeko 6,30etan:** Iruñeko erraldoiak gaiteroekin ibiliko dira.
- **Arratsaldeko 8retan:** AKELARRE taldea.
- **Gaueko 12etan:** AKELARRE taldea.





Pestak

# Abuztuak 15, IGANDEA

## EZKONDUEN EGUNA

- **Goizeko 7,30etan:** Diana:
  - Trikitilariek: Alde Zaharra, Manuel Lasarte, Huarte Gotzaia eta Jose Deunaren kaleak alaituko dituzte pestetako azken egun honetan.
  - Txistulariak betiko lekutik ibiliko dira.
- **Goizeko 9,30etan:** Entzierroa eta zezenak plazan.
- **Goizeko 11ketan:** Herri Kirolak, aizkolariak:
  - MINDEGIA
  - LARRETXEA
  - NAZABAL
  - ARROSPIDE
  - OLASAGASTI
  - JAUNAREN A
- Ordu honetan bertan, AIZANGO BAZTARLAN "Tiro al Plato" saioa izango da.
- **Goizeko 11,30etan:** Larbando futbol zelaian 3.mailako futbol partidua, Elizondo-Tolosa.





- **Eguerdiko 2,30etan:** AURRERAKO BAZKIDEEN BAZKARIA. Txartelak Txokon eta Adurren salduko dira. Txartelak hartzeko epea abuztuak 13 ostirala izango da.
- **Arratsaldeko 4,30etan:** "Tiro al Plato" saioaren jarraipena.
- **Arratsaldeko 6etan:** Ezkonduen entzierroa eta zezenak.
- **Arratsaldeko 7etan:** Ezkonduen ingurutxoa.
- **Arratsaldeko 8retan:** AGUIRREN taldea.
- **Gaueko 12etan:** AGUIRREN taldea.

Leitza

# PROGRAMA DE FIESTAS PATRONALES 1993

## 1 DE AGOSTO - DOMINGO

**9 de la mañana:** Se repartirán los programas de las fiestas patronales por todo el pueblo. Los jóvenes irán acompañados por (la charanga Artadi, los trikitilaris y los txistularis).

Recordar que se deberá entregar el dinero a aquellos que vayan provistos de caja precintada.

**4,30 de la tarde:** Campeonato relámpago de TRUK y MUS en el "carrape". Patrocina la CAJA LABORAL DE LEITZA.

**7,30 de la tarde:** Bailables a cargo del grupo KOXKORRENA.

**11 de la noche:** Bailables a cargo del grupo KOXKORRENA.

## 8 DE AGOSTO - DOMINGO
### DIA DEL NIÑO

**8 de la mañana:** Diana a cargo de los txistularis.

**9 de la mañana:** Ponneys en la plaza.

**10,30 de la mañana:** Misa Mayor. La corporación la formarán los niños que han ganado el concurso de cuentos.

**4 de la tarde:** Carrera ciclista.

**5,30 de la tarde:** Ponneys en la plaza.

**6,30 de la tarde:** Actuación de los dantzaris txikis del AURRERA.

**7,30 de la tarde:** Actuación de los trikitilaris de Leitza.

**8,30 de la tarde:** Calejira con la charanga ARTADI.

**9 y 12 de la noche:** Bailables con el grupo BASAJAUN.

## 10 DE AGOSTO - MARTES
### VISPERA

**10 de la mañana:** Ciclistas. Primero correrán en un circuito y luego harán una contra reloj por equipos.

**1,30 del mediodía:** Comida de los jubilados.

**6,30 de la tarde:** Inicio de las fiestas con repique de campanas y disparo del cohete. A continuación calejira y cabezudos a cargo de la txaranga Artadi y los txistularis.

**7,30 de la tarde y 12 de la noche:** Bailables con el grupo GAUBELA.

## 11 DE AGOSTO - MIÉRCOLES
### DIA DE SAN TIBURCIO

**7,30 de la mañana:** Diana a cargo de los *txistularis,* los cuales harán el recorrido de todos los años.

Diana por la Parte Vieja, Manuel Lasarte, Obispo Huarte y Plaza San José a cargo de los *Gaiteros* de Leitza.

**9,30 de la mañana:** Encierro y embolados en la plaza.

**10,30 de la mañana:** Misa Mayor. La Corporación acudirá acompañada de los Ezpata dantzaris del AURRERA.

**12 del mediodía:** Actuación de los Ezpata dantzaris del AURRERA. Estos reconocerán mediante un regalo la labor de FERMIN AZPIROZ. A continuación partidos de pelota.

**5,30 de la tarde:** Vaquillas en la plaza.

**6,30 de la tarde:** Doma de caballos en la plaza.

**8 de la tarde y 12 de la noche:** Bailables con el grupo GAUBELA.

## 12 DE AGOSTO - JUEVES

**7,30 de la mañana:** Diana con los *trikitilaris:* Recorrerán Patxi Arrazola y el barrio Amazabal.

Los *txistularis* harán el recorrido de siempre.

**9,30 de la mañana:** Encierro y embolados en la plaza.

**11,30 de la mañana:** Deporte Rural con 4 levantadores de piedra.

**5,30 de la tarde:** Embolados.

**6,30 de la tarde:** Actuación de los dantzaris del AURRERA. A continuación bombas japonesas.

**8 de la tarde y 12 de la noche:** Bailables con el grupo JOSELU ANAIAK.

## 13 DE AGOSTO - VIERNES

**7,30 de la mañana:** Diana con la *charanga Artadi,* la cual recorrerá la Parte Vieja, Manuel Lasarte, Obispo Huarte y la Plaza San José.

Los *txistularis* harán el recorrido de siempre.

**9,30 de la mañana:** Encierro y embolados en la plaza.

**11,30 de la mañana:** Banda de música en la plaza.

**5,30 de la tarde:** Embolados en la plaza.

**7 de la tarde:** En el campo de fútbol de la escuela KARTS y CASTILLOS DE AIRE.

**7,30 de la tarde:** Partido de pelota en el frontón.

**8 de la tarde y 12 de la noche:** Bailable con el grupo TRAKETS.

## 14 DE AGOSTO - SABADO

**7,30 de la mañana:** Los *gaiteros* recorrerán Patxi Arrazola y el barrio Amazabal. Los txistularis harán el recorrido de siempre.

**9,30 de la mañana:** Encierro y embolados en la plaza.

**11 de la mañana:** Actuación de 5 bertsolaris en la plaza.

**12,30 del mediodía:** Calderetes en la plaza.

**5 de la tarde:** Embolados.

**6,30 de la tarde:** Gigantes y gaiteros de Pamplona.

**8 de la tarde y 12 de la noche:** Grupo AKELARRE.

## 15 DE AGOSTO - DOMINGO
### DIA DE LOS CASADOS

**7,30 de la mañana:** Los *trikitilaris* irán a la Parte Vieja, Manuel Lasarte, Obispo Huarte y a la Plaza San José.

Los *txistularis* harán el recorrido de siempre.

**9,30 de la mañana:** Encierro y embolados en la plaza.

**11 de la mañana**: Actuación de 6 Aizkolaris.

A esta misma hora en el prado de "AIZANGO BAZTARLA" habrá Tiro al Plato.

**11,30 de la mañana:** Partido de fútbol de 3.a división en el Larbando.

**2,30 de mediodía:** Comida de los socios del C. D. AURRERA K. E.

**4,30 de la tarde:** Tiro al Plato en el mismo lugar que a la mañana.

**6 de la tarde:** Encierro de los casados y embolados.

**7 de la tarde:** Ingurutxo de los casados.

**8 de la tarde y 12 de la noche:** Grupo AGUIRRE.

Pestak

# OHARRAK

1. INCANSABLES txarangak, egunero, eguerdi, arratsalde eta gabean herriko bazterrak alaituko ditu.
2. Buruhaundiak eguerdiero aterako dira txarangarekin batera.
3. Udala ez da kargu eginen zezenetan gertatzen diren istripuetaz.
4. Egitaraua, borondatearen truke, udaletxean eta tabernetan zabalduko da.
5. Aurten PELOTA BERRIK antolatutako pilota partidu profesionalen berri ere izango dugu esku programen bidez, bertan lekua, ordua, e.a. zehaztuz.
6. Zezenetan dabiltzenei eskapa bidea errezagoa egiteko, barreran gainean inor ez eseritzea eskatuko genuke.
7. Kalderetea osatzeko behar diren gaiak bakoitzak bereak eraman beharko ditu.
8. AURRERAKO BAZKIDEEN bazkarira joan nahi duenak, txartelak abuztuaren 13a baino lehen hartu beharko ditu, TXOKON edo ADURREN.
9. Goizeko 3retan egunero, ligatzeko ingurutxoa izango dugu.





# AVISOS

1. La charanga INCANSABLES animará el pueblo todos los días de mañana, tarde y noche.
2. Los cabezudos saldrán todos los días junto con la charanga.
3. El Ayuntamiento no se hace cargo de los accidentes que ocurran en las vaquillas.
4. El programa de fiestas se podrá obtener, a cambio de la voluntad en el Ayuntamiento y en los bares.
5. Así mismo, se informará debidamente sobre los partidos de pelota profesionales, organizados este año por PELOTA BERRI, mediante los correspondientes programas de mano.
6. Para mejora del espectáculo taurino, rogamos al público asistente que no se siente encima de las barreras.
7. Cada cual se ocupará de los ingredientes necesarios para preparar su calderete.
8. Todo el que desee asistir a la comida de los socios de C. D. AURRERA deberá coger el ticket antes del 13 de AGOSTO en los bares TXOKO o ADUR.
9. Todos los días a las 3 de la mañana habrá ingurutxo para que liguemos un poco.

# PLAZAOLA

15.ZENBAKIA



Itziar Fagoaga



Javier Aranburu

## "RALLY"-KO ARGAZKI IRABAZLEAK

Pestak

# PAKO, ZELADORE BERRIE



SARRERA: Urte bat bete da zeladore berrie Leitzara iritsi zenetik. Oraindik martxa hartzen ari bada ere, dagoeneko izanen du zer esan inguruko baso eta mendiei buruz.

– Kaxo, motel: Zer moduz die asuntoa?

Lanpetuta oso. Nahaste haundi xamarra topatu det mendian, lan asko dago eta nahi adinako laguntzik ez...

– Lehenengo, Leitzako mendiak nola ikusten dituzun jakin nahi genuke. Zer da zure gustokoena, eta zein okerren ikusten duzuna?

Zoritxarrez, Leitza aldeko mendiak, ez daude egon litezkeen bezain ongi, orokorrean egoera txarra ez bada ere. Planifikaziorik ez dela egon somatzen da, hala nola, pagadietan dauden hutsuneak, pinadietan garaiz egin ez diren entresakak eta beste hainbat gauza ikusita.

Beste puntuei helduta, mendian aurkitzen dudan dibertsitatea gustatzen zait gehien. Honekin zera esan nahi dut: Leitza inguruan, gaztainadiak, haltzadiak, pagadiak... etb. aurki ditzazkegula, beraiei lotuta dauden animalia eta landareekin batera.

Bestalde, garai bateko explotazio eta plantazio desegokiak dira gutxien gustatzen zaizkidanak.

– Nondik hasiko zinateke lanean?

Hasteko, mendia ezagutu nahi dut, eta ondoren datuak bildu planifikazio bat egiteko.

(Ordu erdiko diskurtsoa...) Planifikazio honetan, gaur eguneko egoera agertuko litzateke, eta horren arabera, mendi mailan nola jokatu. Adibidez, pagadi batzuen erregenerazioa, inguru batzuen garbiketa, pinudiren baten entresaka lanen aprobetxamendua, etb.

– Zein aholku emango zenioke bere terrenoetan zerbait egin nahi duenari?

Hasteko, gaur eguneko egurraren merkatua oso egoera txarrean dagoela esan behar da. Aldatzekotan, egur oneko landareak sartuko nituzke nik: gereziondoak, intxaurrondoak, edo lizarrak.

– Zer da zuretzat egur ona?

Zuzena eta adarrik gabekoa. Hori lortzeko, landare gaztea sartu behar da, gehienez bi urtekoa eta punta hautsi gabe zuzen ateratzeko. Gero kimatu egin behar da... baina hori ez da erraza izaten. Norbaitek ikasi nahi badu hau ongi egiten, nirekin hitzegin dezala nahi duenean.

– Ba al duzu urte honetako anekdotarik?

Mendira atera nintzen lehenengo egunean, zortzi orduz galduta ibili nintzen lainotan, San Fermin inguruan... hura gosea!!!

Beste batetan berriz, Goizuetako mendin nengoela pintxazo bat eduki nun. "Katu"-rik ez nuenez, 12 Km. oinez egin nituen Goizuetaraino. Han biziketa hartu eta Leitzaraño etorri behar izan nuen.

– Basoa edo botilla? Botilla.

– Araia (bere herria) edo Leitza? Araia eta Leitza.

– Taberna edo mendia? Taberna mendian.

– Joselu Anaiak edo Shagu & Sator? Shagu & Sator (dudik gabe).

– Gaztaña edo piñua? Gaztaña.

– Mendin oinez, edo motoz? Oinez.

– Zure lanean, okerrena? Akañek.



Leitza

# KANTINAKO BIXENTE

1993-ko maiatzak 9. Elizondoko zahar-etxearen aurrekaldean nago. Honela dio plakak: "Año 1857. Memoria de D. Francisco Joaquín de Yriarte." Sartu naiz barrenera eta errezibidorean monja bat. Egunon. Bixente Urrutia ekustea heldu naiz. Perdone pero no entiendo el vascuence. Bere hizkuntzan adierazi diot nere nahia eta deitu dio Bixenteri megafoniaz. Berehalaxe etorri da Bixente eta xalo xalo hartu nau. Bere gelara igoarazi nau. Bi oheko gela, Elbete aldera bista ederra duena.

– Zenbat laisterka apustu yokatu ziñozen, Bixente?

– Aurrenekoa Gregorio "Zaki"ri yokatu nion Kaxetatik Amazabalgo zubire. Bentaja emanda yokatu nion, ni Kaxetan eta hure Beleztenaren Ehiztaribordan. Bentaja ezin harrapatuz ederrak ekusi nittun baño pauso batez irabazi nion.

Bigarrena yokatu nion Frantzisko Bigerari, Agustinen anai zaharrenari. Honek neri eman zien bentaja. Frantzisko Kaxetan eta ni Baleztenaren Ehiztaribordan. Abitu giñen eta Yoanenen zeharbegiretu bat egin nun eta berta bertan Frantzisco. Yo zun emanalak eman eta harrapatu ni. Eta gero akabo, bajan bajan. Ni Amazabalgo zubin eta hure Mailburren.



Gero Eselakortera yoan nintzen morroi, orain dela hirurogeita bat urte. Urteko ehun duro, bi galtzapare, bi atorra eta abarkak zen nere yornala. Hango nausi Oxemanuelek apustu egin zun errondondo baten, ni Zabaloneko Lontxon kontra. Plazatik Gazpillotxikiko kilometrora yoan eta etorri. Eselakorteko ganbaran entrenatzen nintzen abotz-alanbrea patu eta haren bueltan. Etxekandre Benita meza nausire yoaten zenen ibiltzen giñen, bestela soñuk ateratzen giñozela eta errixtan emátten baitzigun. "Uitxi" aurretik eta ni atzetik ibiltzen giñen. Baten pipik yandako ohol bat hautsi eta goitik behera sartu zun hanka Oxemanuelek, ni atzetik bertan eta gañetik irago nun. Gero mezatik Benita etorri zenen umek esan zioan eta hak errixtak. Hala apustu hori yokatu giñun eta irabazi egin nion. Bost sozio ziren nere aldetik: Eselakorteko Oxemanuel, Abadebordako Oxakin, Irateiko Joan, Mitxelaundiko Inaxio eta Aieneko Peru. Ehun duro yokatu zittuen. Nek nittun irabazten banun edo galtzen banun bost duro.

Trabesgillek ere izaten zien. Ezkurreko Gaitano, Aztietako Benardo "Malute" eta beste asko. Benardo honek beti trabesa berdiñ berdiñen yokatzen zun. Norbattek esaten bazion "mille zortzireuni", Benardok erantzuten zion: "diruk dirue balio dik eta nek'e mille yokatuko zetit." Domardolako harrobin gordetzen zittun diruk. Trabesa egin behar zunen hara yoaten zen diru bille eta irabazten bazun gordetzea ere bai. Han zun bere bankue.

– Zenbat senide ziñetan, Bixente?

– Lau: Manuel, Miel, Joxe Kruz eta ni. Hiru anaiek Ameriketara yoan zien. Miel eta Joxe Kruz hil zien. Senidetan gaztena ni naiz eta hirurogeita hemeretzi urte bete berrik dittot. Zun ama "bixkorren" al dabil? Guk ya ezin esanen duu bizkorren, "bixkorren" esan beharko duu.

– Bai, "bixkorren" dabil.

Pestak

# OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUA

Lehendabizi Leitzar guztiak zoriondu nahi nituzke eta pesta hauek merezi duten bezain ongi igaro ditzatela opatu.

Hala ere, denak ezin ditugu pestak era berdinean gozatu, umeak era batera gozatzen dituzte, gazteak beste batera, helduak beste batera eta hirugarren adinekoek ere bere era berezia badute.

Azkeneko hauetan pausatu nahi nuke, izan ere pestetan beste askotan bezala, ahaztuxeak izaten bait ditugu.

Hirugarren adinekoen problematikan gehiago sakontzeko asmoz eta beraien beharrei erantzun bat eman nahiean, ikerketa bat burutzen ari da.

Ikerketa honen barrenean inkesta batzu egin dira, hauen bidez gaur egun pertsona hauen errealitatea zein den ezagutu ahal izateko.



Beraz, oro har esan dezakegu, Leitzeko 60 urtetik gorakoen populazioak honako ezaugarri hauek dituela:

– Generalki, ezkonduak daude edo alargunak dira.

– Senar edo emaztearekin eta seme-alabekin bizi dira, bizikideak hiru edo lau izaten direlarik.

– Etxebizitza propioa izaten dute.

– Gehienak pentsionistak dira.

– Etxez-Etxeko Zerbitzua ezagutzen dute, erabiltzen dutenak gutxi badira ere.

– Gehienak Jubilatuen Elkartea ezagutzen dute, galdetutakoen heren bat bertako partaidea delarik.

– Normalki egunero ateratzen dira etxetik.

– Ia-ia guztiak hirugarren adinekoen problematikari irtenbidea ematearen alde daude, gaur egun dauden errekurtsoak ez direla nahikoak uste bait dute.

– Gauzatu daitezken errekurtsoen artean aukeratzerakoan uste dute hoberena herrian bertan etxebizitza bat prestatzea izanen litzakela, bertara nahi luketen pertsonak joan ahalko luketelarik.

Hirugarren pertsona batentzat laguntza ekonomiko gehiago izatea ere azpimarratzen da, baina hau oso zaila ikusten da.

Azkenik, Etxez-Etxeko Zerbitzua indartzearen alde azaltzen dira.

– Aipatutako errekurtso hoietatik baten bat erabiliko luketen galdetzen zaienean, baietz erantzuten dute.

Inkesta eta ikerketa hauen bidez gure hirugarren adinekoek hobekiago ezagutuko ditugulakoan gaude, zer nahi duten jakin eta beraien problematika ezagutu ondoren, dituzten beharrei erantzun egokia ematen saiatu gaitezke.

Eta bukatzeko, badakizue, ongi pasa eta gutxi gasta.

VIRGINIA ERASO
GIZARTE LANGILEA

Leitza

# ZERK ELKARTZEN GATTO?

AKASO rebiste au zuen eskueta allatzen den momentueko marmarren aiko naiz ixilduabe. Au eskribitzeko momentun ordea, pos-partoan dau ne ama. Naiko aurreratue, oi bai, baño ni yayotzeako falta die eun batzuk.

Izan e, izugarrik zeate Leitzarrok e... Ez dozoe bela etsitzen ez! Ne ama aurdun gelditto zenen oso pozik omen zeon, eta bela, bere auzoko laun guzik ba omen zekien yayoko nintzela. Bakarren batek apostuere eiñ omen zon ni Aste Santuko baietz yayo. Beño... ze uste zun ar? Yayotzea ez da aiñ erreza suertatzen geo! Nek beintzet ez dot kristabeik ikuse lau ilabete pasa ondoen, yayo izan denik. Eta zuek? Ni seuru nau apostue eiñ zona gizonezkoa zela. A ze potroak...!

Beno, barkatu bearko zue beño ni oandik txukun izketan ikastekoa nau. Ne intentzioa ez da itz zatarrak botatzekoa beño, ze kristo einbeau ba...

Amak bai, orrek batuaz eta dena omen daki. "Euskara Zerbitzua" deitzen omen da, eta bakizue, or denak persona eskolatuk izaten omen die. "Eta atte?" Galdetukoo norbattek. Egie esan, lotsa pixkoat ematteit esateak beño... beste aldetik, ez naiz atte batekin konformatzeko moukoa! Egie esan bear baot atte asko dauzket nek. Ba, ba, komaidios baietz!

Nik amai galdetu nionen zenbatekin ibili zen, arrittute gelditto nintzen. Ue izen pille esan zizkien... eta denak jatorrak zo!

Jose Peskadero ta... Zestau ta... Josetxo Lizartza ta... Laxarte ta... Baietz ba, egie dela, kristo! Oik gizonak oik... lotsatzeko beño arro sentitzeko arrazoie ez al dot?

Aittortu bear dot nekin kezkatu xamarrak ibili diela. Orregatik elkarto zitton eunbeten ne amak atte guzik eta garbi azaldu zien Leitzen nere bearra bazeola. Alde guzitako yendea zeola emen, eta denen boza bildu bear nula nik. Ori bai, albazen, euskaz. Ne amak serio azaldu zitton gauzek denen aurren. Zer da ta, atte guzik konforme zu... Ue ango poza!

Beno, emendik aurrea izango ttu kontuk. Denen berri yakiten astek ez pentsa larritasunik ematten ez donik. Baño tia! Ortako etorri niñuen mundue ta... etzeok atzea itteik. Ori bai, len esaten aittu gana: Ni Leitzarrok elkartzeko sortu nintzela, eta ez txorradatan ibiltzeko. Ta onezkeo asperraldi earra artuzue. Naiko itzein dot nek. Oañ mundun dien pestaik obenak zelebratzen astea noa, giro earren gañea, zeba...

Ta bukatzeko, emendik aurrea zerbatte nahi baduzue, bakizue non biziko naizen. Lasai in bixite, bestela aspertu igoal ingonaz e... Ayo!

Pestak

# EZKUTUKI



Goizaldeko belagile,
azti,
sorgin,
jainko-jainkosa
orori:

gordeiguzue
ezkutuki
arimaren ixilean
gauerdiko solasa,
har-emandako jolasa,
amestutako irudi,
dastatutako ezpain ezti;

hasperen bakartietan
barruratu arnasa
kilika jasa
zorion zipristin
bihur dadin.

LALA

Leitza

# LEITZAKO PESTAK

S. Tiburtzio entzun zaidazu
Leitzar bezela ari naiz
nola emen pestak egiten diran
beti agoztuko garaiz
txukun da jator armoni onez
ta danok aurpegi alaiz
lagun zaiguzu Leitza ornitzen
pakeaz lanez eta jaiz.

Pesta giroa pesta garaia
pesta usaia nabari
bizitza onek pesta beardu
tarte egiñaz lanari
herriko pesta eskeintzen zaio
onuntz etortzen danari
Leitzako pestak zeiñen politak
entzuten zaie danari.

Adiskideok entzen benetan
pesta degu osasuna
bakoitzak bere barrenen dauka
pesta eta poztasuna
pesta ispillu biurtzen zaigu
hori da edertasuna
bertan dotore ikusten baita
herriaren batasuna.

IÑAKI PERURENA

Pestak

# LEITZAKO ERRIARI



Leitzako semea naiz
ni nere izatez,
zorionez an jaio
nintzan egun batez.
Bera eskertu nai det
bertsoen bitartez,
iñork beartu gabe,
nere borondatez,
iñoiz aztu ez dedin
Manuel Lasartez.

Erri maite ark ez dit
neri egin gaitzik,
biziaren argia
ematea baizik.
Nork ordaindu lezake
olako emaitzik?
Asmatzen badet ezer
esateko itzik,
bertsoen paltan ez det
nik utziko Leitzik.

Biotz oneko jende
apal da prestua
dala Leitzan neretzat
nago sinistua.
Nola egin baneki
nik aien gustua,
saiatzea litzake
arrazoi justua,
baiña ezin asmatu,
au trantze estua!

Argibide bat nago
eman bearrian:
Plazaola erreka
gogoangarrian,
antxe jaio nintzan ni
Franki baserrian;
ta gero bataiatu
Leitzako errian,
goi-aingeru Mikelen
eliz ederrian.

Gero eta geiago
oroitzen naiz Leitzez,
nerekin iñoiz gaizki
portatu balitz ez.
Ezin naiz aztu ango
senide bakoitzez,
baiña pena aundi bat
badet zorigaitzez:
biotzak nai duenik
ezin esan itzez.

MANUEL LASARTE

("Beranduko lanak" liburutik aterata)

UEMA - Donibane enparantza, 1
48380 Aulesti – Bizkaia
Profesionalen datu baseaz arduratzen den enpresa: Iberba Euskara Zerbitzua
94 400 11 33 – iberba@iberba.ws

## Profesional euskaldunen informazioa eguneratzen ari gara

**Azalpena**

Jakingo duzunez, webgunean daukagun profesionalen datu basea eguneratzen eta osatzen ari gara.

Bi helburu berri jarri dizkiogu zerbitzu horri:

- Udaletarako lan egiten duten profesional eta enpresez gain, herritarrei ere zerbitzuak eskaintzen dizkietenak gehitzea: etxearen mantenuarekin lotuta (elektrikariak, igeltsariak, iturginak, pintoreak, zurginak...), kontsumoarekin lotuta (dendak, informatika arloa...), etab.
- Informazioa gehitzea. Gaur egun dauden datuei beste berri batzuk gehitu: euskararen erabilera maila, euskaraz burututako lanak, ziurtagiriak, etab.

Lan hau egiteko, UEMAk enpresa bat kontratatu du: Iberba Euskara Zerbitzua, eta abendura bitartean jardungo du zeregin honetan.

**Eskaera**

Zuen udalean, seguruenik, profesionalen zerrendan agertzen direnez gain, beste batzuk ezagutzen dituzue, Udalarekin lanean egon direnak edo une honetan aritzen direnak.

Datu Pertsonalak babesteko Legea dela eta, gaur egun horrelako daturik eman ezin denez, zera proposatzen dizuegu:

Udalaren hornitzaileei beheko mezu hau bidali, horren berri izan dezaten eta nahi izanez gero izena eman dezaten:

> UEMA-Udal Euskaldunen Mankomunitatearen webgunean, udalei eta herritarrei zerbitzua euskaraz eskaintzen dieten profesional eta zerbitzuak agertzen dira.
>
> Horren helburua hauxe da: herritarrek eta udalek zerbitzuak eta lanak euskaraz jasotzeko aukera handitzea.
>
> Bertan agertzen bazara, zure datuak gehitzeko aukera duzu (bezeroak, ziurtagiriak, etab.)
>
> Oraindik agertzen ez bazara, izena emateko, webgunean sartu eta zure datuak jarri. Doakoa da.
>
> http://www.uema.org/default.cfm?atala=profesionalak

Egindako eskaera bideratuko duzuelakoan eta zuon laguntzaz gida praktiko, erabilgarri eta benetan osatua egingo dugulakoan, atsegin handiz agurtzen zaituztet.

Ion Bollar
UEMAko Lehendakaria

2008ko urria

Leitza

# ... IÑORK EZ ENTENDITZEKO?

Olaxe bota zien anaiek. Zapla!

"Ni euskaldune al naiz eo ze krixtina?"

Oain kontatukoizuet ze pasatu zen gue etxen.

Nik urtero eskribitzet ba Plazaolan zerbatte eta joan den urten e okurrittu zitziena jarri nun.

Anaie negu guzin kanpoan eotten da ikasten eta urte guzin ba iru o lau aldiz ikusteu. Udan berriz etxe alde eotten da eta gu berriz poz pozik.

Ni bakazioata joana nitzen uztailen eta ni etortzeako pestetako programa eta Plazaola partittuk izaki.

Etorri naiz ba etxea pestetako lau eun falta ziela eta anaie izuarri aserre neekin.

Amak kontatu zien nola artu zun pozik plazaola bera arrebak eskribittu zuna leitzeko eta asi lenbiziko linea, bigarrena ta deus ez entenditzen ordea. Kalmatu omen zen pixkoat eta berrittik asi omen zun. Lenbizikoa, bigarrena... itzek, berboak, ...deus ez entendittu ta bota omen zun instanteko programa aiden.

Fiiuuuu papera sokalden barrena!

Antxe asi zitziun erretorike baten:

**"au euskera eo ze krixto da? Ezin entendittu zure arrebak eskribittu duna!**

**Ni euskaldune al naiz eo ze krixtina?**

**Nekaben la india!**

**Alako pozakin asi naiz leitzen eta...**

**Au Leitze guzin ezta amar pertsonak e eztue entendittuko!**

**Ordun *zertako eskribitzezo iñork ez entenditzeko?***

**Urrengo urten neonek eskribittu bear dot, ara! Jarrikot "aupa, zer duu? Ixtanteko entendittu zue. Aio" eta ya esta nei sikira denak entendittukoitea."**

Nik neonek e esan nun ba, jontxo! arrazobea zeukek! eta txikittue geldittu nitzen.

Netzat e tristea izandu zen anaiek ez entenditzea eta gero zea bestekin itzeitten asi eta ez anaiek ez ahizpek ez amak eta...

... ordun pentsatu nun ze politte izanen zen denak euskera bat besteik ez bagiñu erabiliko...

... ordun pentsatu nun ezin dula gureakin bakarrik geldittu... ikasi beaula leitzekoa ez dena re... telebisioan esaten duena entenditzeko, periodikoa leitzeko...

... ordun pentsatu nun obe dela igual plazaolan leitzeko euskera re erabiltzea denak entenditzeko.

... eta pesta bezperan familiko apari baten apustu bat in giñun.

Jokatzeizot apari bet baietz eskribittu urrengo urten zerbatte zuretzat eta leitzeko euskeran. Baietz eta ezetz aparie gora bera, leitzeko euskeran eo bita iñen ote nun ba ementxe duzue ne anaiei dedikatutakoa (poz pozik gaiñea) eta or eonen da nonbatte bestea. Ola nai dunak nai duna leittuko do, beño politte izanen litzike ba bik entenditzea re.

LALA

Pestak

# MARTIN KORDAUN: EHIZTARI, ARRANTZALE ETA BIDEGILE TXUKUN

Zimeletatik Usategietara okerka okerka bidetxiorra aldapa errazteko. Kattagorriak adarrez adar saltoka dabiltzen pabo tarte hauetan majiñabat aitzur kolpe eman du Martin Kordaunek. Leitzelarreko kamioa egin zuen "Porttu" kontratistak erakutsi zion bidetxendak egiten. Eta ikasi zuen ofizioz ongi ari da balitzen. Aurrena Usategietara igotzeko eta gero Akola aldera beste bi bidetxenda egin ditu kilometro banakoak: bat Intsuseko pabodira eta bestea Behilekura. Baita ere beste bat egin du Usategietatik Urepel aldera dagoen Mugatara, Frantseserreka barrena. Eta ez du utzi bidea urratu eta kitto. Ez. Bidetxiorraren bazterrean pabo landareak sartu ditu.

Mugatan bidea ezezik zurezko txabola ere egin du polit samarra. Bi intxaur landare sartu ditu txabol inguruan eta gehiago ere sartzeko asmotan da. Larehun metro bidean tuboa sartu eta eraman du iturritik txabolaraino ura. Tuboa eta teilaturako txapak erosten hirurogeita bost mila pezta gastatu eta orain andrea haserre!

Usategietan Kulpittue deitzen dioten uso paradan gaude. Bista ederra. Jaizkibel, Ayako Harria eta Larun ikusten dira urrutira. Bertago Goizuetako bordak, Aritzirauli, Errekabeltz, Elengo Larrea, Enemalkor, Saaberri, Iztarpelepo eta Barrengomuñoa. Leku zoragarria. Baina dena ez da eder. Gure inguruan lur estali kartitxo azal dago eta ezkerretara, Bidegorrita aldera, palda osoa zuri zuri dago. Otea eta zarakak zeudela eta ehiztariak makinaz lur azal guzia larrutu. Saharako basamortua dirudi. Hara zer dion Martin Kordaunek:

- "Orain aurretik etorri ittuen Arbizuko bi ekologiste, motille eta neska. Ehiztarin txabolan aurreko botille pille eta lata erdoittuk ekusi zetien eta esan zeiden ia zer itten zun zaborreri honek hemen. Neonek bildu nittula eta zakutan sartu, behera yetsi eta basurerora eraman behar nittula erantzun neyoan. Kartitxo azalak'e biltzeko esan zeiden eta denak biltzeko asmoan nak. Gero ekusi zetien nek bide bazterren sartutako paboak eta gustora geldittu ittuen. Esan zeiden Sanjoanetan ziela Arbizuko pestak eta beren etxetik buelta itteko.

Orain erretiroa hartu diit eta nehiko betakin neok. Datorren urten Diputazioari eskatu pabo landare ona eta soildutako palda hortan sartu behar zetit mille pabo landare. Urte pare baten bi mille pabo sartu behar zetit inguru hotan. Eta gañea kaso iñ e bai".



### USO PASA GUTXITZEN

Azkeneko urteetan uso asko igarotzen al den galdetu diodanean "batez kasik" erantzun dit. Gogoan dauzka berak eta bestek zenbat uso harrapatu dituzten urtez urte. Errementaneko Mielek buru harrigarria du apustutako marka eta gora beherak gogoan edukitzeko. Bada Martin Kordaun ez da gutxiago ehizeko kontutan. Hara hemen buruz eman dizkidan datoak:

Martin Kordaunek Usategietan harrapatutako usoak:
1989: 74 uso
1990: 33 uso
1991: 7 uso
1992: 4 uso

Leitza

- Gehiena harrapatutako egun bakar batean zenbat uso?

- "Nek hemen dauketen markaik haundina 44 usokoa dok, 1958-ko urrin 27n. 36, 34 eta 30 beste hiru lau alditten; 20-25 askotan; 4, 5, 6, 7 horire askotan. Eta hutsik berriz pilleka".

1989 garre urtean denen artean Usategietan harrapatutako usoak:

Kulpittun: ............................................................................................................184 uso
Boketen: ..............................................................................................................144 uso
Berrogeita hamalau garren puestoan: ...................................................................120 uso
Hirurogeita bat garren puestoan: ..........................................................................146 uso

1978 garren urtea da Martinen goanen usorik gehiena harrapatutako urtea. Urte hortan, urriaren 19, 20 eta 21ean 1.044 uso hil zituzten. "Hori dok hemengo markarik haundina" dio.

## USO BANDARIK HAUNDINA

"Orain dela zortzi urte, urrin 29n, goizeko beatzitan hasi usoa, alture izuarrin e, mendi guzie dena banda bat, ordubeteko banda gelditu gabe. Sekulen eztit halako bandik ekusi. Handik bost minuture beste banda 45 minutukoa. Kontuk ateratzen aritu giñozen Jabier Odriozola eta bik eta millon bat eta berrehun mille uso kalkulatu giñetien, bi bandan arten".

## MUGATAKO TXABOLA



Zurezko txabola dotorea ornitu du. Txapazko teilatua, arbol adarrez estalia. Kristalezko leiho bat. Bi obe koltxobe eta guzi. Tximinia eta behiko sue oraindik egitekoak dauzke baina laister egin beharrak. Ura txabol atarira eramana dauke, gero barrenera sartzeko asmotan.

Mendi polit hortara joaten den aldiero arrasto bat egiten du ate ondoko zutabean. Arrasto sail haundia dauka dagoeneko. Ameriketako Mayan antzeko numerazio sistema darabil egiten dituen igoaldiak kontatzeko.

## ARRANTZAKO KONTUK

Hamar urte egin zituen arrantzan itsasoan, hogeita lau urtetan hasita. Orioko "TORRONTEGI" izena zuen itsasuntzian ibili zen. Barku horren yabe edo patrona Joxemari zen, baina arrantzale izugarria zelako "Lehoia" deitzen zioten. Udaberrian sardiñetan eta udan atunetan ibiltzen ziren. Aurrena joaten ziren Burdeos aldera. Han sardiñe eta parrotxa harrapatu eta hogeita bi edo hogeita lau ordutan Vigo gainera. Handik arraye honontza etortzen zen eta arrantzaleak ere bai atzetik Coruña edo Avilés taineraino. Hara zer dion Martinek:

– "Parrotxa aurrena zebatu itten giñien pasta espezial batekin eta gero sarez harrapatu. Sartzen giñien biberoatan eta han edukitzen giñien bizirik atune zebatzeko eta kañaberako. Antxoa ttikie're erabiltzen giñien atune zebatzeko.

Gabezko arrantzari esaten zitziok ardora. Gau illunen arrayek argi itteik eta horri esten zitziok ardora. Egunezko arrantzari esaten zitziok zarda. Arraye pillen dagoenen esten zitziok "arrai gorri" eta hori dok harrapatzeko errexena, tontotue eottek osota. Beita dok atune harrapatzeko erabiltzen den arrai zebatue.

Atune harrapatzen dok hotz dagoen garayen kañabera luzekin; bero dagonen motzakin eta epel dagonen erdiko kañaberakin. Sanpedroak ingurun hasten dok atune eta udazken sarreran bukatzen dok. Pasan etortzen dok, usoa bezala. Arrai asko bazegoen hamar-hamabi egun pasatzen giñetien lehorrera etorri gabe. Arrai gutxi bazegoen hogei egun.

Atune egunezko arrantza dok eta gabez itten giñien goardie, ordubete bakoitzek. Gau baten goardin nengoela neska bat etorri zetzeiden enbarkazio eder baten. Galdetu zeiden ia non giñeuden. Esan neyoan baño berak'e bazekien. Yakin in nahi zien ia ongi zebillen. Burdeoskoa huen. Hilabeterako zien itsasoan ibiltzea. Zigarro paketea bota zeiden barrenera eta yoan huen itsasoz itsaso.

Egoaldi ona badago barkue trabes uzten dok. Egoaldi txarra badago atzetik zorroa botatzen zitziok, parakaidasen antzekoa, hortxe ehun metro luzeko kablekin, barkue popaz, epurdiz edukitzeko. Bestela egoaldi txarrakin barkue trabes uzten badok igoal berrogeita hamar kilometro eramaten dik gau baten.



Patron de pescana neonek itten nien askotan. Nekatue zegoanen Lehoiak esaten zeiden: "Hartzak hi naparra. Arraye holako lekuten zeok eta bihar goizerako hara yoan behar diu". Hure lotara eta ni timonera. Majiñebat gau pasatzen netien rutan. Ruta markatzen zeiden: nordeste, norte cuarta, norte 11-15, 22-30, 33-40... Eta han eraman eta zuzen yoaten itzen arraye zegoan lekure".

## PIXTI ARRASTOAK

Hemengo pixti eta hegaztien berri Lorenz etologoak adina badaki Martin Kordaunek. Elurrean egindako arrastotik ezagutzen du zer pixti edo zer egazti klase den. Honoko pixti hauen berri ematen dit: azerie, azkonarroa, basakatue, basahuntze, basurdea, epurtatxa, erbie, kattagorrie, katajinetea eta udoa. Iabera ez omen du behin ere ikusi. Basurdea hemea den edo aketza den ezagutzen du arrastotik.

## MARROAK

Erbiak eta beste animali batzuk beren gorde lekuaren inguruan ibilera nahasiak egiten dituzte zakurrek edo beste pixtiren batek aurkitu ez ditzan. Eta horri esten zaio marroak egitea. Ikus dezagun ehiztari honek zer dion:

- "Erbik itteik gelditzerako gora iyo eta arrasto beren bera yetsi, eskuñera yoan eta berriz arrasto beren etorri eta gero hiru edo lau salto in eta gorde. Beste batzutan salto ttiki ttikik denak nahasin in eta bertan gelditzen dok".

## SEBASTIAN ZIRIRI BERTSOA

Lehen Aienea komertzio haundia zen. Bazuten denda, ostatua, panaderia, behiak eta zezena. Hango nagusia, Sebastian Gogortza, irispobe gaitze zen. Beti harrapeloan ibiltzen zena. Bazter guziak beretzat behar zituena. Urte askoan alkate egona zen eta horrengatik "beti alkate" deitzen zioten. Dendara edo tabernara zin jendea zirikatzea asko gustatzen zitzion.

Garai hartan ardoa leher edaten zuen Martin Kordaunek. Egunero joaten zen Aienera ardoa edatera eta Sebastian desaireak egiten aritzen zitzion. Beti zerbait esan beharra izaten zuen Gazteluneko herrikoengatik. Martin aspertu zen aldiero erretolike bera entzuten eta honoko bi puntuko bertso hau bota zion, jende askoren aurrean:

Sasoia juan eta
urteak etorri
interesak utzi ta
infernura sarri.

Sebastian negarrez hasi eta bere gelan sartu zen.

ASTAITZ

1993-ko maiatzak 23.



# PLAZAOLA ALDIZKARIA

Leitzeko talde politikoen buruei zuzendua:

Juan Oronoz
Josetxo Zabaleta
Silvestre Zubitur
Jaun Agurgarri eta Ohoregarriok:

Barkaiguzue zuengana zuzentzea, zuen herritar humilenak garen Plazaola aldizkariaren antolatzaileok. Baina, badira Leitzeko gure herri maite honetan azken urte hauetan zuen herrikideak kezkatzen dituen zenbait arazo eta, hauei buruz argitasun pixka bat eskatu nahi genizueke.

Hola ba, eskertuko genizueke bihotz bihotzez ondorengo galdera hauei erantzunen bazeniete, modu zehatz batez eta asuntoarekin zerikusi duten zera guztiak aipatuz:

1. Baduzue asmorik zerbait egiteko medikuaren etxea izandutakoarekin?

2. Zuen talde politikoak zer dio industri barrutiaz? Ze lurrak hartuko lituzke, nola finantziatuko litzateke...

3. Badaramazkigu urte batzuk kiroldegiaz hitzegiten entzuten, baina, egia esateko deus gutxi dakigu zinez asunto honetaz. Zuen talde politikoak badu proposamenik edo zerbait esaterik?

E.A. UDALTALDEA

- **Medikuaren** etxearekin zer egin, luze eta sakon eztabaidatua dago, eta behar diren obrak egin eta etxe kulturala bezela erabiltzea erabaki zen. Hortarako Nafarroako Gobernuari diru laguntza eskatuta dago, eta berak onartzen duen bezain azkar obrak hasi beharko lukete. Bitartean bere teilatua konpontzea beharrezkoa da.

- **Industri Barrutia** behar beharrezkoa da Leitza mailan, eta hortarako eman behar diren pausoak behin betikoz eman egin behar dira gainera.

Landako zonaldea egokia da tailerrak, fabrika txikiak eta almazenak instalatzeko, eta Urto aldea berriz maila haundiagoko industrientzat.

Zonalde industrial batek behar dituen azpi egiturak eta lurrak lortzea partikular batzuentzat oso zaila da. Horregatik Udaletxeak egin behar du lan hori eta industri promotoreen eskuetan jarri behar dituen partzelak, Udalari kosta zaizkion prezio razonable bat kobratuaz. Nafarroako Gobernuarekin harreman asko izan dugu gai honi buruz, eta baita laguntzeko konpromezuak lortu ere finanziazio on baten bitartez kostoak jeisteko.

Baino zenbait zinegotzik horrenbeste denboraren buruan oraindik ez dauka garbi ez non egin behar den, ez lurrarik hartu behar den eta ez nola egin behar den. Udaletxeko erabakiak modu batera hartu ondoren Nafarroako Gobernuaren konseilariaren aurrean beste iritzi batzuk erakutsiz. Industri zonaldeko zehar bidearekin gertatu zen bezela. Aukera guztiak galtzen hari gara, eta bertako promotoreak atera biderik gabe uzten.

Horregatik partidismoak alde batera utzi eta lurraren espekulazioa berdin, konsekuente izanez jokatzea beharrezkoa da, herri honek dauzkan langabeziaren arazoei erantzuna ematezkeo.

Postak

Udaletxeak dauzkan konpetentziak oso mugatuak dira, baino lurrak eta azpiegiturak lortzeko posibilitateak bere esku dauzka, bakarrik konsekuente izanez zinegotzien dezisioa behar.

- **Leitzak kirol munduan** maila berezia izan du beti, ikusi besterik ez dago zenbat txapeldun ezagutu ditugun herri honetan.

Baino kirola egiteko bidea biztanle guztiak behar dute eta gero eta gehiago gainera.

Horretarako polikiroldegia beharrezkoa da.

Orain dela hiru urte aukera ederra galdu zen, Arau Subsidiarioak agintzen duen lekuan egitea nahi etzuenak bazirelako. Orain ez da erreza orduan Gobernuak onartu zuen finantziaketa lortzea, baino lortu ditekeena lortuaz ahal den azkarrena egin behar dela uste dugu.

Gero ta jende gehiago ikusten da ibil aldiak egiten eta hortarako aitz garrantzitsua da baita ere Plazaolako Trenbidearen berreskurapena.

H.B. UDALTALDEA

***Medikuaren etxea.*** Jende askok galdetzen du etxe honek beste zereginik ez ote duen atez eta leihoz itxita egotea besterik. Eta zalantzarik gabe udaleko etxea izanik Udalari pasa behar zaiola galdera. Erabilpen ezberdinak eduki ditzake, baina hauek zerbaitetan oinarritu behar dute. Herriko dinamikari begirada bat eskeintzen badiogu, garbi azaltzen zaigu herri honek kultur mailan duen urteko egitaraua fetxa berezietaz gain (Ihauteriak, kultur astea...) ekitaldi asko dira egiten direnak. Ekitaldi hauen izatea ez da hutsetik ateratzen, talde ezberdinek lanean aritzen direlako baizik. Gaur egun Aurrera K. Elbarteak betetzen du huts handi bat baina debateak, erakusketak,... antolatzeko edo musika tresnak jotzen ari direnentzako ez dago itxurazko aretorik; hau ikusirik gure asmoa medikuaren etxea KULTUR ETXEA bihurtzea da. Udal talde batzuren ustetan liburutegia ere kokatu daiteke baina gure ustez tokia asko murriztuko luke eta gainera gaur egun erabiltzen den lokala egokia iduritzen zaigu dituen emaitzak ikusirik. Finantziaketa arazoa da handiena, Nafar Gobernuari laguntza eskatu zaio behin eta berriz baina beste hainbestetan ukatu egin du, lortu arte eskatzen jarraituko dugu.

***Industrialdea.*** Aspalditik datorren arazoa dugu hau, baina derrigorrez aterabide bat emateko gunea iritxi dela iduritzen zaigu, baldin eta dauden lanpostuak mantenitzea gutxienez nahi badugu. Denok dakigu orain dela hilabete batzuk, hogei bat urte lanean daraman lantoki bat ixtera etorri zirela Nafar Gobernutik, legeak eskatzen dituen baldintzak betetzen ez zituelako, tramitazio batzuk egin ondoren urte bateko epea eman diete beste leku bat bilatzeko; gainontzeko tailer edo lantoki ttikiak ere egoera berdintsuan daude lege aldetik. Lehengo urtetik hasita pauso franko eman dira nahiz eta emaitza gutxi atera oraindaino. Azkenean bereizketa bat egin dugu: Serbizioak (tailerrak, almazenak...) alde batetik eta gainontzeko industri motak bestetik. *"Serbizioak".*

***Landan*** kokatuko lirateke. Aspaldidanik egindako proiektoa aprobetxatuko litzake; (Plan Partziala Maiatzaren 28ko batzarran onartu zen) akzesoa edo sarrera berriz, dagoen bidea izanen litzake, noizbait sarrera berria eginen balitz, egokiena Sarrio edo Olaberri aldera iduritzen zaigu; Udal talde batek BARIANTEA egitea ikusten du derrigorrezko. Gu honen AURKA gaude, Nafarroa-Gipuzkoa Autobidea hortzetan daukagunez, trafikoa asko gutxituko bait da herrian eta, noiz eta orain, Landa erdia hartuz bide handi bat egitea astakeri hutsa iduritzen zaigu. ***Beste industri moten kokalekua.*** Hiru leku aztertu dira: Urto, Larbaitz eta Astibialdea. Teknikariek hiru lurraldeak ikusi ondoren, Astibialdea eta Larbaitzaldea alde batera utzi zituen, urbanizatzeak kosto ekonomiko izugarria suposatzen zuelako. Urtoaldea oso leku egokia iduritu zitzaion eta informe bat egitekotan gelditu zen eta horren zain gaude. DESJABETZA edo espropiazio legeaz ere gure postura garbi azaldu nahi dugu, gu, espekulazioaren aurka gaude, baina honek ez du esan nahi desjabetzaren alde gaudenik, ezta gutxiagorik ere, azken pausoa izanen litzake hau, baina "Behar Sozial" bat aurrera atera behar denean eta beste biderik ez dagoenean, beharturik gaude

Leitza

pauso hori ematera; argi utzi nahi genuke baita ere norbaiti zerbait desjabetzen zaionean jabeari egiten zaion kalte ekonomikoa alden neurrian hoberenean ordaindu behar zaiola. Finantziaketaz oraingoz ez dago ezer, aurrerantzean ikusi beharko da laguntzarik jasotzen den ala ez; 1993ko Aurrekontuan 100 milloi gastu bezela sartu dira eta sarrerak beste 100 m. "Contribución especial" bezela.

***Polikiroldegia.*** Inork ezin dezake ukatu aurreko legislaturan oportunitate on bat galdu zela denok dakizkigun arazoengatik. (Dicastillon pozik egonen dira, hemen egin ez zenez han egin omen zuten eta...). Udal hauteskundeetan Herri Batasunak gai batzuri lehentasuna ematen zien, hau da Industrialdeari, Mendiei, Polikiroldegiari eta abarri, orain ere berdin jarraitzen dugu. Leitzan kirola ezaugarri handia izan da, bere ospearen arrazoi bat izan delako. Baina goi mailako kirola bakarrik ez da bultzatu behar, gazte, ume eta larrigoen topaleku bezala indartu behar dugu eta polikiroldegia aproposa izan daiteke. Dena den aurtengo aurrekontuan ez dago sartuta, zeren nahiz eta oso beharrezkoa ikusi, lehentasun gehiago daude; hasitako obrak, Industrialdea... Diru aldetik Udaletxea nola dabilen jakiteko... ba, aurreko urtean 33 milloi ordaindu ziren korrittu eta amortizazio direla medio; orain beste kreditu bat eskatu behar da, obren bigarren zati hau eta "travesía" edo herriko bide nagusia egiten hasten direnean jarriko diren azerak ordaintzeko, 60 milloi milloi ingurukoak.

Obren lehenengo zatirako eman zuten laguntza % 72 inguru izan zen eta oraingoan berriz % 64,24.

Proiektuen lehentasuna ezartzeko, baldintzak aldatzen dira garai ezberdinetan.

## INDEPENDIENTE UDALTALDEA

**Medikuaren etxearekin.-** Herriko jendeak daukan eritzia edo erabakitzen duena.

- Lo que la gente del pueblo decida u opine.

**Industri barrutiaz.-** Denak ahal duguna egiten ari garela, gure egoerari aterabide bat emateko.

- Que todos estamos haciendo todo lo posible para encontrar una salida a nuestra situación.

**Kiroldegia.-** Hau egiteko lurrak ongi ordaintzen badira eta dirua lortzen bada, alde gaude.

- Estamos a favor siempre que se consiga dinero para hacerlo y se paguen los terrenos razonablemente.

Pestak

# LEITZAKO
## OSASUN ETXEA

### FESTETARAKO AHOLKUAK

Herriko festei begira, eta egun hauetan denok ongi pasa ahal izateko, aholku batzuk eskeini nahi dizkizuegu.

Sabela hutsik edukita, ez ezazu alkoholik hartu.

Begira ezazu zenbat edaten duzun, pestondo haundiegia ez izateko.

Saia zaitez alkohola duten edari ezberdinak ez nahasten, gure gorputzak okerrago jasaten bait ditu; hobe da alkoholik gabeko edariak tartekatzea: freskagarriak, zumuak, mostoa, uru, eta abar; horrela ez duzu pestondorik izanen.

Edanda bazaude, ez ezazu gidatu; hobe da berandu ailegatzea ez ailegatzea baino.

Janaria, egunean zehar zenbait aldiz hartu behar duzu, festan denbora guztian sasoian egoteko.

Sendagairik hartzen baduzu, ez ahaztu festetan, eta alkoholarekin kontu gutxiago izan.

Zure gorputza egun guztian lanean arituko denez, lo egin beharko duzu behar hainako orduz.

Sexu harremanak izan behar badituzu, aldez aurretik, bada ezbada, neurriak har itzazu. Sexuaren bidez kutxatzen diren gaixotasunak eta nahi ez diren haurdunaldiak ez izateko, preserbagailua erabili ezazu.

Egun hauetan sendagilearengana jo behar baduzu, ez ahaztu, 061 telefonora deitu behar duzula.



# GU EZAGUTZERA GONBIDATZEN ZAITUGU

Integrazioaren alde lanean ari den kolektibo bat gara.

Helburu berbera daukagu, gure senitartekoek ezagutuak, baloratuak eta onartuak izan daitezen borrokan ari gara.

LORTUTAKO ONARPEN SOZIALAREN ARABERAKOA IZANEN DA BERAIEN AUTONOMIA.

Ezagutzea hauxe esan nahi du, beraiengana hurbildu, besteak bezela tratatu, beste pertsonekin egiten dugun bezelaxe pixkanaka-pixkanaka deskubrituz joan.

OKILE izena daraman elkarte bat sortu dugu. Lagundu nahi badiguzu edo/eta gurekin elkarlanean ari, EGIN ZAITEZ BAZKIDE. Hileko gutxienezko kuota 200 peztakoa da eta Aurrezki Kutxan ingresatu dezakezu, OKILE ren kontuan.

Jendeak, integrazioaren alde dagoela dio baina ez ditu ezagutzen, ez ditu tratatzen. Beharrezkoa da lehen urratsa eman eta beraiengana hurbiltzea.



Pestak

# LEITZAKO ELIZATIK ETA JUZKATUTIK HARTUTAKO DATUAK:

**1992.URTEKO JAIOTZAK:**

- DELGADO COLL CARLOS ALFREDO. Urtarrilaren 3an.
- VILLABONA PERURENA NEREA. Urtarrilaren 9an.
- ASTIBIA GOICOECHEA EKAITZ. Otsailaren 28an.
- BARAIBAR ESTANGA OINATZ. Martxoaren 19an.
- GARCIA GOMEZ MARIA CARMEN. Martxoaren 23an.
- ORONOZ ECHEVERRIA MIKEL. Apirilaren 19an.
- ASTIBIA ZABALETA ERIKA. Apirilaren 20ean.
- JAUREGUI URQUIOLA EDURNE. Apirilaren 20ean.
- IRAOLA URQUIOLA OIHANA. Apirilaren 30ean.
- OTERMIN GAZTAÑAGA MIREN. Uztailaren 26ean.
- PERURENA ZABALETA JOSU. Abuztuaren 11n.
- MUTUBERRIA ARREGUI ITZIAR. Urriaren 4ean.
- ZABALETA CABALLERO LOREA. Urriaren 12an.
- IBARGUREN PERURENA ENAUT. Urriaren 15ean.
- SAGASTIBELZA ARROQUI GORETTI. Urriaren 27an.
- SAGASTIBELZA ARROQUI LEIRE. Urriaren 27an.
- SAGASTIBELZA BERACOECHEA JASONE. Azaroaren 19an.
- ALDUNCIN ECHECHIQUIA OLATZ. Azaroaren 23an.
- GARCIA SAGASTIBELZA YENIA. Abenduaren 21ean.

**1993KO URTARRILAREN 1ETIK APIRILAREN 29 ARTE IZANDAKO JAIOTZAK**

- ZABALETA BAÑOS ANE. Urtarrilaren 19an.
- OLANO ZABALETA JULEN. Urtarrilaren 27an.
- LECEA GRAGIRENA ARITZ. Otsailaren 5ean.
- LASARTE ARUZ JOANES. Otsailaren 9an.
- SESTORAIN SARALEGUI LIERNI. Martxoaren 9an.
- ZABALETA RENTERIA JON. Martxoaren 12an.
- ODRIOZOLA AGUIRRE XABIER. Martxoaren 21ean.
- OLAECHEA LIZARRAGA MIKEL. Apirilaren 16ean.
- URQUIOLA GORDOBIL UNAI. Apirilaren 29an.

**1992.URTEAN HILDAKOAK:**

- MARIA ITURRARTE RETEGUI. Otsailaren 17an.
- JUAN IGNACIO GOICOECHEA GOICOECHEA. Otsailaren 28an.
- JUAN TOMAS CESTAU ARRIBILLAGA. Apirilaren 6ean.
- LORENZA JESUSA ALDUNCIN ZABALETA. Apirilaren 22an. (Valentzian hila).
- JOSE MARIA PERURENA SAGASTIBELZA. Maiatzaren 15ean.
- M.ª LORENZA IBARRA ARRECHEA. Uztailaren 2an.
- MACARIO SEÑORENA ECHEBERRIA. Abuztuaren 5ean.
- ENGRACIA ARREGUI ZABALETA. Abuztuaren 7an.
- VICTORIO ALCOZ LARREA. Urriaren 7an.
- IMANOL RODRIGUEZ DOMINGOS. Azaroaren 5ean.

**1993.URTEKO URTARRILAREN 1ETIK APIRILAREN 4 ARTE HILDAKOAK:**

- ANASTASIA SAGASTIBELZA ETXEBERRIA. Otsailaren 21ean.
- RUFINO ALVAREZ MARCHENA. Martxoaren 3an.
- MARIA MAXIMINA ZUBITUR ARRIBILLAGA. Martxoaren 31n.
- M.a ANGELES LIZARZA SARALEGUI. Apirilaren 21ean.
- CRISTINA ZABALETA OLASKOAGA. Apirilaren 28an.

# HERIOSURREAN

**– Gurutze santuaren sinaleagatik**

Libra gaitzatzu gure etsaietatik... Nere iduritua, herri batek izan lezazken etsairik haundienak, ahazkorrak baitira. Horrexegatik hasi nintzen egun batez, beste ixtorio askoren artean, han hemenka ikusten nituen gurutze zaharren atzeko heriokontu mixteriozkoak biltzen. Ez prezisamentean erlijioak edo sinismen kristau xuriak hartara eragi-nik. Hereje samarra izaki. Gertaera trajiko bati jendearen gogoenean eusteko, gurutzea lagun haundi izandu duela jendeak ohartu nintzen behingo batez, eta orain berrehun urtetik goitiko herio kontuak, gurutze bati esker jendearen ahotan bizi bizirik aditzeak, egia esan, liluratu egin ninduen arrunt, eta bazter bat jo bestea jo, **heriosur** nabilazu geroztik, nere lanak uzten dizkidan tartetan. Oi, zeinen hitz ederra: **heriosur**! Zenbat holako ale galdu ote du euskal senak. Nik bakarrik dakit nere gogoan zenbateko plazerra sortzen duen. **Bixente Lopenekoak** zenbat par egin ote dit gaurgero, hitz zahar hori dela medio.

Lehenbizi, **Joxemiel Elosegik** egindako zerrendatik atera nituen gurutzea aipatzen zuten tokizen guziak. Baina, geroztik han eta hemenka aiton amonen ahotik jasotakoak ere badira franko; herri biziaren oroimenak ez baitu hondorik jotzen santa sekulan. Santakruzko guruzbideko hamalauak, Aldeko gurutze zuri zurezkoa, eta holako batzuk, alde batera utzirik, horratx orain artekoan nere belarrira iritxi diren gurutzeen zerrenda:

**LEITZAKO GURUTZEK**

**AMAZABALKO GURUTZEA**
- Dermio gurutzea: intra/extra muros

**HERRI BARRENGO GURUTZEK:**
- Amazabalko bi gurutze harrizkoak. (1900)
- Axkonan gurutzea. (?) (...)
- Yoandegiko zokoko eskalen gurutzea.

**ERASOTE ALDEKO GURUTZEK**
- «Txori»n gurutzea. (...)
- «Larru»n gurutzea. (...)
- Arrolako gurutzea. (1884)
- Aurtxikineko gurutzea. (1895)
- Kitarran bueltako gurutzea. (1912)
- «Apexa»n gurutzea. (?) (1933)

**GORRIZTARANGO GURUTZEK:**
- Giltzur itturriko gurutzea: (...)
- «Kontxo»n gurutzea: (1876)
- «Minttorla»n gurutzea: (1849)
- Urdantzarango zubiko gurutzea: (...)
- Gallarten zubiko gurutzea: (1861)
- Errutizko gurutzea. (1862)
- Estensorotako gurutzea. (1832)
- Pellipen zubiko gurutzea. (1832)

**ARKIXKIL ALDEKO GURUTZEK:**
- Iruñagako neskan gurutzea. (1885)
- Barreneko gurutzea. (...)
- Motxeneko alorburuko gurutzea. (...)
- Askazarreko gurutzea. (1872)
- Aisoarran gurutzea. (1870)

**ERREKA ALDEKO GURUTZEK:**
- Olaso bideko gurutzea: (...)
- Martiñen gurutzea (Indinab.) (1950)

**SAKULU ALDEKO GURUTZEK:**
- Astibiko ondoan ba ote zen (?) (...)

**LEITZELARRE ALDEKO GURUTZEK:**
- Abaden gurutzea. (1779) (...)
- Maiñen zelaiko gurutzea: (...)
- Elutseko belatsoko gurutzea (1785)
- Urremeatzetako gurutzea. (1932)
- Reketen gurutzea. (1936)
- «Koskorro»n gurutzea. (1941)

Horietatik asko osatuak ditut polikitxo. Baditut bilduak gurutze bakoitzaren atzeko hamaika ixtorio xoragarri. Bildu gabeak ere bai beste mordoa. Beraz, estimatuko nuke, gai honi buruzko edozein kontu, aditzera emanen balit deusen berririk duen jendeak. Gure aurrekoei gertatutako gauza onak eta txarrak, argiak eta ilunak, den denak, bihotz bihotzetik kontatzeko lotsa den herria, anima galdutako herria baita. Eta jendea zer esanik ez. Halakorik ere sumatu baitut, nik nahi baino gehiago. Orain besteak ditut gogoan, mihingaina oraindik arruntean zuritu etzaienak. Haien ohoretan ekarri nahi dut hona, gurutze baten ixtorioa, gordean uzten ditudan beste guzien eredutako.

**– EUTERAKO BELATSOKO GURUTZEA (1785)**

Gurutze honen berri, aurren aurrenekotz **Miltxonbordako Jose Perurena** artzaiak eman zidan: *"Basomeneko lengo morrien bat izan bear zun or ille. Bordatik, ardin lanak inde, etxera eldu zela illuntzen, biden eroritte edo, eztakit nola ill izaan zen; urrengo goizen ille billatu emen zuen biñipiñ, bide baztarren. Gure attuna zenak ala esaten zun, aren goanen or ezautu izandu zula gurutze ori. Auskalo noizko kontue den? Baño oañik ortxe dao gurutzea, Basomeneko belatsoan beiko ertzen, aritz baten sartue. Len «**Euterako Belatsoa**» esaten zetzion orrei, ta gero «**Gurutzeko belatsoa**».*



*Joxe Miltxona, etxeko atetan. Honetxek eman zidan Basomeneko barrutipeko gurutzearen berri aurrena.*

Pestak

Bati eta besteri galdezka hasi, eta hurrengo argitasuna, **Joxakin Labayen Atsoteitakoak** eman zidan: *"Neri, attuna zenak esan izandu zien. Gaben etxera etorri tte goizen berriz ara yoan, ibiltzen emen zen morroi ori tte, gau beten mutille falta! Gaben etortzeko yoana izaan zen da, illundu te oañik gizona falta! Bille atera ziela ta, antxe bidapen arrapatu zuela ille. Ni ttiki ttikie nintzelare morroie izaten zuen beti.* ***Basomenen****, da nere goanen olaxe ibiltzen zen: goizen etxetik yoanda, ardin lanak inde, etxera etortzen zen lanera, ta illuntzen berriz yoan. Eunen bi buelta itten zittun bordara. Ola ibiltzen zenen bat izaan zen ildako urere.* ***Arnabarreta****tik dintxenda artute, aurrera yoan da, belatsoan beiko ertzen antxe dao gurutzea, aritz baten sartue. Baño, belatso ori iñ baño len gurutzea an zen. Aspaldikoa bear do orrek. Nere goanen iñe da belatso ori, ta ordun moztu zioan goiko punte oaiñ gurutzea dagoan aritzeri."*

Denak bat datoz hildakoa Basomeneko morroia zelakoan. Hargatik jo dut, basomenetarrik zaharrenengana, eta hala esan dit ezkondu arte guzian alderdi hartan artzai ibilitako **Manuel Intxaurrondo**k: *"****Basomenekoa*** *ez baño,* ***Beiñina*** *omen zen an ildakoa! Esaten zuen etzela bera ille, norbattek ille izaan zela"*. Galdera franko egin dizkiot, baina ez dit beste argitasunik eman Manuelek: *"Nik eztakitt besteik. Balitteke Basomenen morroi zegoana izatea, baño,* ***Beiñina*** *zela esaten zuen gure etxen, ori seuru dakit."*

Inork ez dit beste argitasunik eman. Gurutzea dagoen lekura joan eta, **Miltxon Joxek** esan bezalaxe, zainak usteldu eta haizeak bidera iraulia harrapatu dut haritz morroa, bere gurutzea azpian duela. Fotografiarik ezin atera hala. Joan naiz bihamonean: bidea libratu bidenabar adarrak kimatu, ipurditik eta gurutzea baino goitixeagotik motortzerraz bi epai eman, eta lehengo lekuan tente para dut haritz enborra, bidexurraren garaikaldean, lehengo gisan gurutzea bide aldera begira duela. Inguruko azala aizkoraz kendu, eta gurutzea nabarixeago gelditu denean, fotografia pare bat atera diot. Oraindik begira gelditu natzaio gurutzeari: *«Ez ote dut bilatuko nik, hire atzean gorderik dagoen anina xahar hori?»*.

Udaleko padroiak, elizako artxiboak, denak jiratu, eta deusen arrastorik ez! Ordu asko hutsean galdurik, etsiak hartuxea utzi nion Basomeneko eta Bidaniko familien atzeaurreak astintzeari. Handik zortzi egun barren, elizako heriotz agiri guziak banan banaka patxadan ikusteko beta hartu nuenean ohartu nintzen presaka eta muturka ibiltzeak ez duela deustako balio langite honetan:

Hara! Hauxe duk Elutseko barrutipeko gurutzeak jasotzen duen heriotza! Kopia atera, beste datuak hornitu artxiboko beste liburuetatik, etxera etorri, eta makinaz pasa dena, zuk orain eroso irakur ditzazun:



*Joxe Miltxona, etxeko atean. Honetxek eman zidan Basomeneko barrutipeko gurutzearen berri aurrena.*

*"A siete de febrero de mil setecientos ochenta y cinco murió* ***desnucado*** *caiendose de una* ***Aia*** *que estaba trasmochando en el monte llamado* ***Leizalarrea*** *de esta Villa,* ***Bauptista de Arruarte,*** *Mozo soltero, natural de esta Villa e hijo del* ***Caserío*** *llamado* ***Vidañia****, segun la declaración de* ***Juan Bauptista de Garaycoechea, Maestro Cirujano,*** *Conducido en esta dicha Villa, quien acudió a ella con asystencia de* ***Domingo de Eguzquiza****, Alcalde de ella, y* ***Lazaro Huarte****, escribano Real de la misma, al reconocimiento de su cadaver sin que hubiese lugar para el Ausilio de Sacramentos y el dicho cadaver fue enterrado en esta Parroquia el día nuebe del mismo, y para que conste firme yo el Teniente de* ***Don Miguel Ignacio de Zabaleta*** *Abad de ella =* ***Don Juan Josef de Zabaleta****"*.

Beraz, Manuel Zentralekoak esan bezala, **Bidañin bordakoa** zen hildakoa. Heriotz agiria ez da nolanahikoa: Alkatea, Medikua, Exkurrabea,... Ez ziren noski hutsagatik joanak izanen. Otsailaren **zazpian** hil eta **bederatzian** hilobiratua izan zen, gainera. Sinale errezelo txarrak sortu zituela mutilaren heriotz misteriotsuak. Nahiz pago gainetik erorita hil zela esan paperak, zinez nola hila ote zen mutila? Hori, behar bada, inork argituko ez duen mixterioa genuke.



*«Eguterako belatsoko gurutzea», Leitzalarrea. Basomeneko beheko bordan, honuzko barrutipean.*

Bidañin bordako semea zela badakigu hildakoa, eta baliteke Basomeneko morroi izatea ere; etxetik inork baino erosoago baitzituen Basomeneko bi ardibordatako lanak. Mundura 1758ko otsailaren 7an sortua zen, beraz **27 urte** betetako egun berean hila genuen mutila. Bataioko ur santuak ematerakoan **Juan Bautista** para zioten izena, nahiz gero **Bautista** deitu. Aita **Juan** eta ama **M.ª Josefa Yeregui** zituen. Aitaren aldeko aitona **Juan de Arruarte** «natural del lugar de **Irurita** en el Valle de **Baztan**»; amona, **Josefa de Zabaleta** leitzarra. Amaren aldeko amona, **Ana Maria de Mariezcurrena** «natural de Ezcurra»; eta aitona, **Fco. de Yeregui**, «natural del lugar de **Vidania** en Guipuzcoa».

Bidaniko Praxku honixe zor dio etxeak, gerozko **Bidañin borda** izena. Lehengo izen zaharra **Zabalone txikia** baitzuen, bai bordak bai herriko etxeak. Hartatik sortua dugu gaurko izena: **Bidañin borda > Biañin borda > Beiñin borda,** eta baita, **Beiñin herriko etxea** ere. Nola izaten diren gauzak? Herri giputx batek horra eman izena etxe leitzar bati! Egia da, gipuzkoak asko zor dio Leitzari. Nik esan behar banu, izpiritu giputxa duen herria baita Leitza, puska haundi batean. Hango hazitik baitatorkio, nere irudituan, «arrandi» sona ere. Herri honen mendetako historia horren lekuko.

Bai, «**Zabalone txikia**» zen bai, **Beiñin bordaren** izen zaharra. Halaxe ageri da pago gainetik erorita hildako **Bautista** zenaren senide batzuren jaiotzako paperean ere. Seniderik zaharrena, **Juan Francisko,** 1745eko urriaren 13an jaioa zuen, eta gurasoak «dueños de la cassa vecinal llamada **Zabalone chiquia**» zituen; bigarrena, **Juan Manuel** 1748an jaioa; hirugarrena **Barbara** 1752an; laugarrena **M.ª Josefa** 1754ean; boskarrena **Bautista** bera; seigarrena **Juana Bautista** 1761ean; eta zazpigarrena **M.ª Fermina** 1764ean jaioa, beste senide guziak bezalaxe **Zabalone txikian.**



Beiñinborda > Bidanin borda. Bidaniar batek emana du izena. Lehengo bere izen zaharra: **Zabalone txikia** baitzuen

Harrigarri bada ere, lehengusu propioa, bera bezalaxe pago gainetik erorita hila zuen Bautistak, hamabost urte lehenago, 1760ko ilbeltzaren 19an. Honatx haren heriotzako paperak zer dion elizako artxiboan: *"A diez y nueve de henero de mil setecientos sesenta* ***habiendo caido*** *en el monte* ***de una Aya*** *murió* ***reventado*** *Thomas de* ***Arruarte*** *mozo soltero, y no recibio los sacramentos y en el dia siguiente fue su cadaver enterrado... en la sepultura perteneciente a la casa llamada* ***Archaconea****, y por la verdad firme yo* ***Don Fermin de Zabaleta****."*

Gaur **Artxikonea** deitzen dugun etxe eta borda izenak, **Archakonea > Archeconea > Archiconea** bilakaera eman baitu mendetan zehar. Hala ageri da behintzat elizako paper zaharretan. Artzaren izenik ez omen zuen bilatzen **Joxemiel Elosegik** Leitzako toponimoetan; horra hor bat: **Artxako** (gaur **Artzatxo** esanen genukena). Orain badakit zergatik nahasten nituen **Artxikonea** eta **Aurtxikienea** ditxosozkoak. Honen izena haste beretik holaxe dator paperetan; beraz komeniko litzake bestearena **Artxakonea** erabiltzea, bestearekin nahastetik urruntzeko besterik ez bada ere.

Baliteke etxe hontako semea izatea **Thomas** hori, baina segurantziz ezin esan: bizi ziren etxeaz besteko hilobian ere sartzen baitziren askotan gorpuak. Dena den, honen aitak **Bartolome** zuen izena; amak **Maria Jocobe de Labayen**. Aitaren aldeko aiton amonak berriz, **Juan de Arruarte** eta **Josefa de Zabaleta** (goian aipatu Batistaren berberak) «dueños de la casa **Gogorza**» ziren. **Baztan** aldetik Leitzara etorritako **arruartetarrak** ondasun haundien jabe eginak baitziren Leitzan. Aberatsak izaki nonbait aurrekoz.

Hortik atera kontuak, gurutze baten berri ez emateak, edo beste edozein ixtorio xuri edo beltz gordetzeak, zenbateko ohorea eta irabazia dakarren herri baten animarentzako. Hasieran nioena, diot bukaeran: gurutze santuaren sinaleagatik libra gaitzatzu gure etsaietatik. Izan ere, aingeru xuri usteko horiek baitira gaur eguneko eta betiko etsairik okerrenak.

Anima Erratuen Zaindaria

Milatan mila esker niri kontu zaharrok kontatzeko grazia eta beta hartu duzuen guziei, eta zer esanik ez, elizako eta udaleko artxibotan nerekin pazientzia puxka hartu duzuen horiei; bihotz bihotzez diot: zuena da meritua, nerea, azken batean, bizio zaharra baita.

# ATERALDIAK

## ERRAMINTA GEHIENAK FALTA

Etxe batzuk izaten dira lanerako erraminta gehienak falta dituztenak eta horietako bat joan zen auzora sega eta segapotoa behar zituela eta ia emanen zizkioten. Eman zizkioten. Handik geroxeago eskurea behar zuela. Eman zioten. Hirugarrenean sispaye behar zuela. Eman zioten. Laugarrenean ia sardea libre zuten. Eman zioten. Eta bostgarren aldiz joan zenean Batixte ganbaran ari zen gari jotzen eta bere koñata Joakinak esan zion:

- Berriz'e hemen da ba ia saskie libre daukun.
- Arrayoa esaiozo hanka arteko horik'e libre dauzkula!



## AXINTXIO ETA APEXA

Joan Migel behiak yezten ari zela erauntsia etorri zen eta ekulluko ate leakumera atera zen ikustera. Tximista sartu, buruan ile palda erre eta apezaren koroa bezalako soildua egin zion. Horrengatik deitzen zioten "Apexa".

Olaberri ondoko alorrean arbi ateratzen ari zen Apexa eta Axintxio, motiko koxkorra zela, kapazoa zintzilik zuela erosketak egitera zetorren herrira. Apexaren ondoan pasatzerakoan besoak gurutzatu eta "Ave María Purísima" esan zion Axintxiok. Apexa sutu zen, bere on guzietatik atera zen eta pentsatu zuen: "Bueltakoan esaten bazeidek tiratu ittaye eta bi hankak moztu behar zezkeioat." Axintxio heldu zen herrian kapazoa beteta eta errutitik hasi zen oihuka: "Apexa, Apexa, Apexa, Apexa...". Eta Apexak pentsatu bezala tiratzen dio ittaye hanketara eta Axintxiok salto egin, bi hankak bat batean goratu eta ittaye aurrera. Axintxiok hartu ittaye, Olaberriko presara bota eta laisterka etxera alde!

## KABIA BERTAN EGIN

Oxemielek atxaurea jarri zuen garidian txoriak izutzeko. Handik egun batzutara joan zen Oxemiel garia ondu ote zen ikustea eta zera... garia dena jana eta txoriak kabia atxaurearen poltsan egiña!

## TOLATXENEKO PRAXKU ETA TURUTA

1957. urteko abenduaren hogeita bian egin zuen Nikolas Ormaetxea "ORIXE"k Euskaltzaindian sartzeko hitzaldia Leitzeko udaletxeko batzar salan. Jende asko bildu zen jaialdi hartara. Euskaltzale gehienak hemen ziren. Ondoreko egunetan Turuta goardiazibila ez zegoen konforme. Ikus dezagun nola mintzatu ziren tabernan Turuta eta Praxku:

Turuta.-Yo les voy a denunciar.

Praxku.-Primero denúnciale al gobernador. Con su permiso han hecho esto.

Turuta.-Yo voy a empezar a puñetazos.

Praxku.-En nuestro pueblo se reparten las morcillas, pero también se recogen.

## FERMIN INFERNU ETA JOXE ALBIENTEA

Igandeetan goizmez ondoan eta eguerdiko mezondoan jotzen zuen Albienteak bandoa. Igandetik igandera izaten zen bandoa baina batzutan asteraunean ere jotzen zuen herriko leku jakin batzutan. Antxoa saltzailea etorri zela edo norbaitek zerbait galdu zuela... Behin leku horietako baten jo zuen bandoa eta bestera zijoan atabala galtzarbean hartuta. Ferminek galdetu zion:

- Zer bando yotzen ari haiz?
- Horroko hortxe aurrexeagoan yotzen diit.

Eta han utzi zuen Fermin aho bete hortzekin.

Leitza



Garai hartan Fermin herriko jueza zen eta hurrengo egunean kalean han etortzen zaio Joxe albientea juzgaduko paper batekin:

- To, honoko paper hau firmazak hementxe.

- Nek etxen botatzen diit firme.

Eta Albienteak han joan behar izan zuen kuzkur aski Ferminen atzetik Añaldera.

## EUSKARAZ AHAZTU

Leitzar bat joan zen kanpora lanera eta boladatxo bat eginda itzuli zen herrira. Euskaraz ahaztu zitziola eta erdaraz mintzatu zitzion Angel Alduntzini. Ziztulari hau sutzea etzen zaila eta begira zer txinpartak bota zituen:

- Hiri euskaraz ahaztu? Hiri? Demonio alu zerrie. Hi, hi Guratzko asta kaka tarten hazie haiz da.

## MADRILGO PUERTOA

Inaxio joan zen kanpora lanera eta gero itzuli zen herrira. Estudioan ari zela eta dena herronka eta potea. Angel Alduntzinek galdetu zion ia bada zer estudiatzen zuen:

- Estoy estudiando peritaje mercantil.

- ¿Qué es eso?

Mutila pixkabat gora begira egon, bere indar guziak bildu eta hasi zen dotore aski erantzuten:

- Por ejemplo tú cargas un barco en el puerto de Madrid...

Eta Angelek dipla dapla bi belarriondoko!

## TXORI LOTSAGABEA

Lehenago gari asko egiten zen Leitzen. Gari iriñarekin egiten zen etxeko labean ogia eta behiko suen opea. Gariaren lanak hauek ziren: lurra prestatu eta erein, goroztu, eskuretu, itte, espaltzen eduki, etxera eraman, jo, garigarbitzeko makinaz garbitu eta errotan iho. Hortaz gainera garia ontzen zenean txoriak uxatu behar izaten ziren garia jan ez zezaten. Behin Astaitzagako attuna, Batixte, txorigoardin zegoen eta garidìtik bidali zuen txori banda. Txori bat garidiaren ondoko esian gelditu zen lasai aski, berriz garidira joateko asmotan. Attunak bastona goratuta:

- Nak alde ittekela hortik!

## BI HAUSPO HAUTSI EGUN BATEAN

Oraingo Basakabiren aurrean lehenago bazen Kaxeta izena zuen etxea. Han Gaztañagak taberna edukitzen zuen. Igande batean Axintxio joan zen hara eta hauspoa hartu, behiko kirtenaren gainean hanka jarri, goikoari heldu eta tarrat! zarratatu egin zuen.

Herri guzian zabaldu zen Axintxiok hauspoa hautsi zuela. Gero Axintxio etorri zen Sanmartín Botikaroaren ostatura (oraingo Lasartenera) eta hango neskazaharrak esan zion: "Hi, Axintxio, hauspoa hautsi omen dok gaur Kaxetan. Nola hautsi dok, nola hautsi dok?". Eta Axintxiok:

- Belaxe erakutsiko dizuet.

Sukaldean zintzilik zegoen lekutik hartu zuen hauspoa, behiko kirtenaren gainean hanka jarri, gainekoari heldu eta tarrat! bigarren hauspoa zarratatu zuen.

Ostatuko nagusia haserretu zen eta esan zion Axintxiori:

- Begira Erbiti: etxe hontan etzakela geyo hankik sartu.

Hurrengo igandean ostatu hortako atez kanpotik eskatu zuen baso bat ardo Axintxiok. Atera zioten mostradorera eta Axintxiok esan zion Astaitzagako Oxemartini:

- Hi, Arruarte, pa zak baso ardoa lurren.

Oxemartinek jarri zion esandako lekuan eta Axintxio lurren etzanda jarri, gerriz goikoa bakarra sartu tabernan eta edan zuen baso ardoa.

Pestak

# KAIXO LAGUNAK:

Orain dela hilabete bat eskolan Aurrerak ipuinen lehiaketa antolatu zuela esan ziguten, eta idazten hasi ginen. Hemen 3., 4., 6. eta 8. mailakoek parte hartu dugu. Lan guztietatik maila bakoitzeko bana aukeratu dute, eta hementxe daude zuek irakur ditzazuen.

Asko gustatzea espero dugu eta festa onak pasatu!

## LEITZAKO FESTAK


Agurne . Oronoz
3. maila B
9 urte


Abuztuak 10 ean, Leitzako festak izaten dira. Arantxa zalditxoetan ibiltzen ari zela, zalditxoak ahuzten hasi ziren. jende guztiak ateratzen hasi ziren baina Arantxak ez zekien zalditxoetatik ateratzen eta bere aita, tonbolan jokatzen ari zen. Orduan {Pum}, Arantxa zulo batetik erori egin zen. Han behean dena urrez betea zegoen, baina ez zeukan poltsikorik urrea gordetzeko. Goitik erori zenean, biak hautsi bait zituen eta orduan galtzan barrenean sartu zituen, gero bere aita sokakin ateratzen hasi zen, baina beti erori egiten zen. Azkenean atera zuen, etxera itzultzerako 100 pztako bat bakarrik zeukan eta 100 pztarekin Autotxokatan ibili zen. Hemendik aurrera Arantxa ez da gehiago zalditxoetan ibiltzen.

Agurne






Leitza

Imanol Arrenabar

4.a

# FESTAK

Aspaldian orain dela 500 urte oraindik ez ziren festak egondu eta jende pila bat aspertua egoten zen.
Udaletxeko alkateak jendea ez aspertzeko zerbait asmatzen hasi zen. zortzi egun pasa eta gero, gizon bat korrika joan erori, eta derkuidoan, festa hitza atera zitzaion.
Orduan udaletxeko alkateak festak izeneko egun dibertigarria antolatu zituen.
Eta balkoitik ikusi zituen festak.
Eta jendea oso ongi pasatzen ari zela jaiak, ikusi ondoren, bera ere festara joan zen dibertitzera. Udaletxeko alkatearen familia guztiak ikusi zuen aldizkarian festaren notizia hori eta denak parte hartu zuten.



# Festetako Ohitura

Leitzako festak, denok dakizuen bezala, udan izaten dira, abuztuaren 10etik 15era.

Orain dela berrogeitamar bat urte, gizon batek Jose omen zuen izena, eta ezkongabea zen. Josek neskatxa bat ezagutu zuen eta berarekin ezkondu zen. Hamar ume eduki zituzten, hamar ume haietatik zaharrenak Bartolo izena zuen. Bartolori gizon batek dantza egiteko balio zuela esan zion. Bartolo dantza ikasten hasi zen. Neska lagun bat bilatu eta herriz-herri dantzan hasi ziren. Madril-a ere joan ziren dantzatzera. Bartolok eta neskatxak "Inguru" izeneko dantza dantzatzen zuten, eta "Inguru" dantzatik dator "Inguruxo" dantza. Eta urte hartatik, gaur harte behintzat, urtero "Inguruxo"-a izeneko dantza dantzatzen da Leitzan ohitura bat bezala. Leitzakoak bait ziren Bartolo eta neskatxa.



Larraitz Ezmendi Ostibia

6..

L' Leitza

## Leitzako festak [illegible]

Lagunak herrian geundela, liburudenda batetik pasatzean txartel bat ikusi genuen hau jartzen zuela: Abuztuaren 10-etik 15-era festak dira eta 13an egun berezia, SU TA GAR ekartzen dute

Hau irakurririk lagunok, Kanping-denda bat erosi genuen, ez zen oso haundia baina tira, Leitzako festak han pasatzeko.

Azkenean hainbeste desiatu genuen eguna ailegatu zen eta Mikelen aitak hara eraman zigun. Han, belatso zelai batean, eraiki genuen Kanping-denda. Egun hura 10 zen eta bazkaltzeko zerbait behar genuenez, herri aldera joan ginen eta nahiko janari erosi eta gero, herria ezagutzera joan ginen. Ahal genituen toki guztiak ikusi ondoren, eta pixka bat aspertzean, Kanping-denda aldera joan ginen bazkaltzera eta gauerako prestatzea.

Baina, hura izan zen ezustekoa hura, belatso hartara ailegatu ginenean beste Kanping-denda bat zegoen gurearen ondoan. Haiek barruan zeuden eta gu bezala etorri ziren beste neska batzuk ziren. Berehala hartu genuen elkarren arteko usteona eta hitzegiten jardun genuen denbora guztia...

Ez dakit sinistuko didazuen baina ez ginen gure Kanping-dendatik atera. Festa guztiak hor pasa genituen, belatsoan, eta ez nolanahi gainera. Ez dakigu neska haiek nola pasa izan zuten, (uste dugu ongi) baina nire bizitzako momenturik hoberena igaro nuen.

Igor Aldaia

Pestak

# DENBORAPASAK




Osatu ondorengo gurutzegrama. Kontuan izan ⊙ dagoenetan arbola nahiz zuhaitz mota desberdinak (mugagabean) jarri behar dituzula.

## ...Sagarraren adarraren...

Sagardogintzari buruzko testuan honako esaldiak azaldu zaizkigu:

- Udazkenean, **eguzkiaren** lehen printzak mendigainetan agertzen hasten direnerako, gure sagardogilea hasia da lanean.
- Ordu horretan, ez da harritzekoa **kupelaren baten** barruan aurkitzea.
- **Sagarrondoaren** fruituak lurra estaltzen duen belar **motzaren** gainera erortzen dira.
- Lan hau aldizka egiten da, egun **batzuren** tartearekin.
- Sagar-mamia **tolarearen** azpilean ezartzen da.
- Denbora hau iragan ondoren, sagardo garden, argi eta usaintsua heldua da jadanik gure **usaimenaren** eta **ahosabaiaren** gozamenerako.
- Lagun taldeak **mahaien** inguruan jartzen dira.
- Sagardo-txorrotada mehe bat aterako da, **dastatzaileen** basoetan lehertuko dena.
- Zenbait **sagardogileren** eritziz azken muztio hau da guztietan finena.

### LUMAREN ASMAKIZUNA:

Bost luma ditugu, bi beltz eta hiru txuri. Hiru gizonek ilaran jartzen dira eta bakoitzak luma bat hartzen du, zein koloretakoa den jakin gabe. Atzekoak aurreko bien lumak ikusten ditu eta esaten du eztakiela zein koloretakoa den berea. Erdikoak aurrekoarena ikusten du eta honek ere dio eztakiela zein koloretakoa den berea. Aurrekoak eztu besteen lumak ikusten, eta berea ere ez, noski. Baina honek dio, besteei entzun ondoren, badakiela zein koloretakoa den bere luma.

Beno ba, ea asmatzen duzun zein koloretakoa ote den lehenbiziko honen luma eta, nola demontre jakin ote duen.

### FEMINISTEN GUSTOKO TXISTEA:

– Epa! Pili, zertan zaa neska, aspaldi ez ziñuzela ikusten, bizi zaa edo zer?

– Hementxe gabiltze ba, ikusten dozo, beti bezela, lan da lan. Badakizo emakumeoi zer tokatzen zaigun behin ezkonduezkioz, erosketak, etxea txukundu beharra, umeak zaindu, senarrari aparie prestatu behar, bere hasarrealdik aguantatu behar...

– Bai, bai, hori dena badakit. Beño gero gauea ailatzen denen... eh!

– Bai, neska, bai, hori ere hala da; beño... joe aizu! ZIZTOR puske txar batengatik zerri osoakin gelditu behar ere...!

**LOREA ETA IDOIA**

Ileapaindegia
eta Solarium-a

*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

Telf.: 61 09 07 LEITZA

**JOSE ETXEBERRIA**

GIZONEZKOENTZAKO
ILEAPAINDEGIA

*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

LEITZA Tel. 510.282

**KORNIETA ELKARTEAK**

*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

LEITZA

**VDA. DE LAZARO ERVITI**
**ZERRATEGI MEKANIKOA**

*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

Tel. 51 00 08 LEITZA

**MAPFRE**

MUTUALIDAD DE SEGUROS
Una organización a su servicio

*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

Tel. 51 04 99 LEITZA

**PINTURAS OROPAL**
**F. J. SAENZ**

PINTURAS INDUSTRIALES Y
DOMESTICAS

*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

Tel. 51 00 49 LEITZA



**URTO KARROZERIA**

TXAPA ETA PINTURA KONPONKETAK
**Jesús Azurmendi Jauregi**

*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

Kamineros etxea BERASTEGI
Telf-ak. (943) 68 32 43 y (948) 61 06 64

**KAIA ARRANDEGIA**

PESCADOS Y MARISCOS SELECTOS

*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

C/ Elgoyen, 20
Tel. 61 07 33 LEITZA

**MERTZERIA DENONTZAT**

Jostun tresnak, galtzerdiak eta
azpiko arropa

*Festa onak opa dizkizue*

Tel. 51 05 61 LEITZA

**ANA**

Janari denda

*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

Patxi Arrazola, 9 LEITZA

**ASTIZ ZURGINDEGIA, S.L.**

Sukaldeko eta bainuko altzariak

*Festa onak opa dizkizue*

Tel. 51 02 85 LEITZA

## TXOKO TABERNA

- Pintxoak
- Otartekoak
- Kaxuelak

Giro alaia

Gauetan "Karaoke"

*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

Tel. 51 02 27 LEITZA

CLIK

FOTO ULAZIA

Sta. Cruz, 43

Urbanización Zizur

Tel. 18 33 01

*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

ADUR

ADUR TABERNA

- Otartekoak
- Kaxuelak
- Era askotako pintxoak:
  - Olagarroa
  - Grabak
  - Ziztorra sagardotan...

Elbarren, 16

Tel. 61 08 64 LEITZA

*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

## LOCAL SOCIAL MENDIGORRIA

*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

Patxi Arrazola LEITZA

## Urepel kirolak

EHIZA, ARRANTZA, KIROLAK eta BIZIKLETAK (TAILERRA)

*Pesta zoriontsuak opa dizkizue*

Manuel Lasarte, 5 LEITZA

Tel. 61 09 13

## MAIMUR

- EGUNKARIAK
- FOTOKOPIAK eta FAX
- TEXTU LIBURUAK
- OPARIAK

Herriko Plaza. Tel. Fax 51 01 46 LEITZA

*Jai zoriontsuak opa dizkizuegu*

## ELKAR ILEAPAINDEGIA

*Pesta onak opa dizkizue*

LEITZA

## LANDA TABERNA

GIRO JATORRA ETA MUSIKA EDERRA

*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

LEITZA

## RODRIGUEZ ETA ERASO LANTEGIA

RENAULT zerbitzua

*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

Tel. 51 02 59 Elgoien kalea, 15

## CONSTRUCCIONES SAGASTIBELTZA Y ARTOLA

Era guzitako igeltsero lanak

Elbarren 86, 2.° ezker

Tel. 51 02 65 - 61 07 24 LEITZA

*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

ARDOTEGIA
**LENITZ**
ARDO ETA LIKORETAKO BILTOKIA
INSALUS, SAN MIGUEL GARAGARDOA
ETA COCA-COLAREN BANATZAILEA
*Festa zoriontsuak opa dizkizue*
TEL. 51 03 33 LEITZA

**BANCO DE VASCONIA**
*Leitzar eta bisitari guztiak pesta goxo batzuk pasa ditzazuela*
Tel. 51 01 38 LEITZA

**BELEN**
**Oinetakoak**
*Jai zoriontsuak opa dizkizue*
Elbarren, 52
LEITZA

**LEIZARAN**
KONTABILITATE ZERBITZUAK,
ENPRESA TXIKIENTZAKO
ADMINISTRAZIO LANAK
Tel. 61 06 45 LEITZA
*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

**SAGASTI**
TABERNA ETA JATETXEA
*Jai zoriontsuak opa dizkizue*
Tel. 61 06 37 LEITZA

**IZOZTUEN ETXEA**
PRECOCINADOS, MARISCO,
CHARCUTERIA Y CROQUETAS DE CASA
Elbarren, 80
Tel. 61 07 49 LEITZA
*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

TABERNA, ERRETEGIA
**MENDIZABAL**
Txuleta eta bisigu erretan espezialitatea
*Jai zoriontsuak opa dizkizue*
Elgoien, 22 Tel. 61 08 90 LEITZA

KAFETEGIA • GOZOTEGIA
**NEKANE**
*Jai zoriontsuak opa dizkizue*
Se recogen encargos de tartas y pasteles
Tel. 51 03 28 LEITZA

**ANA ARRANDEGIA**
Eguneko arraiak eta izoztuak
*Jai zoriontsuak opa dizkizue*
Urrutizkina: 61 06 81

JANARI DENDA
**ZABALETA**
*Jai zoriontsuak opa dizkizue*
Tel. 51 04 28 LEITZA

**"GAZTETXO"**
Goxotegi eta jolas lekua
*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

CITROËN
**SARALEGI**
*Jai zoriontsuak opa dizkizue*
Tel. 51 04 90 LEITZA

**PLAZA AUTOESKOLA**
ASEGUROAK ETA GESTORIE
*Pesta onak pasa ditzazuela*
Huarte Gotzaia, 8 LEITZA
Tel. 51 03 38

**LEITZELARREA AROZTEGIA**
Herrería, carpintería metálica
Elbarren, n.º 58 Tel. 51 05 98
31880 LEITZA (Navarra)
*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

**GARCIARENA ARRANDEGIA**
Eguneko arraiak
*Jai zoriontsuak opa dizkizue*
Elbarren, 72 • Tel. 51 05 90 • LEITZA

**BIKOITZ TABERNA**
*Jai zoriontsuak opa dizkizue*
Elbarren, 16 LEITZA
Tel. 51 00 72

**EROSLE**
SUPERMERKATUA
*Jai zoriontsuak opa dizkizue*
Tel. 51 00 36 LEITZA

**J. A. URKIOLA**
Harategia, Urdaitegia
Idi haragitan eta hemengo Zekorretan espezialitatea
*Jai zoriontsuak opa dizkizue*
Tel. 51 04 67 LEITZA

**MADRILADORA LEIZA, S. COOP. LTDA.**
Leitza
*Jai zoriontsuak opa dizkizue*
Estazioa, z/g LEITZA
Tel. 61 06 72 • Fax 61 08 46

**BIOK JANTZIAK**

Gizonezko, Emakume eta Umeentzako jantziak

Elbarren, 32 LEITZA

Tel. 51 05 58

**ARIZTIMUÑO ANAIAK ERAIKINTZAK**

Lan orokorrak eta berrikuntzak

*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

Telf-ak. 51 02 02 y 51 03 74

LEITZA

**TXAPA PINTURA LEITZA KARROZERIA**

Txapa konponketa, kabinan egindako pintaketa eta labean egindako lehorketa, kolpe haundien konponketa (bankada).

Leitze-larreko errepidean LEITZA

Tels. 51 04 60 - 51 05 58 (Etxekoa)

**JESUS BULDAIN**

Carnicería y Charcutería

Tratante de ganado

Teléfono 51 01 67

**KOXME ZABALETA**

Ultramarinos

*Festa onak opa dizkizuegu*

Tel. 51 03 06 LEITZA

**JOSE IGNACIO ARZALLUS**

Harategia - Urdaitegia

Etxeko Txistorra

*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

Tel. 51 03 77 LEITZA

Tel. 68 30 42 BERASTEGI

**ORAIN ELKARTEA**

*Festa zoriontsuak opa dizkizue*

*herritar eta bisitari guziei*

LEITZA

*Peluquería Eguzki*

Asun y Lidia

*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

Elbarren, 34 - 1.º A

Tel. 61 06 49 LEIZA (Navarra)

KIROLAK ZESTAU

MATERIAL DEPORTIVO

KIROL TRESNAK

LEITZA

Tel. 51 00 87

**GARAGE LEITZA**

Amazabal, 29 Kalea

Klase guztietako berebil konponketak eta erosi salduketak Peugeot-Talbot agentzia

*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

Tel. 51 04 66 LEITZA

## "GARBI"

Garbigaidenda
Usaidenda eta
Jostailudenda

*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

Tel. 51 01 73

## LIZARRAGA

HARATEGIA

*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

Tel. 51 02 83

## ARAKINDEGIA

JATETXEA

*Jai zoriontzuak opa dizkizue*

Tel. 51 00 52

## ASTIZ

LIBURUDENDA eta PAPERDENDA
Eskolarako eta kiroletarako gaiak

*Jai zoriontzuak opa dizkizue*

Elbarren, 28 Etxeko tel. 51 04 05

## GURATZ-MENDI

K. K. J. ELKARTEA

*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

Elgoien, 1 LEITZA

## GAZTAÑAGA TABERNA

Otartekoak, pintxo beroak, kaxuelak

*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

Tel. 61 07 08

## JOSE MIGUEL URKIOLA

ESNEKIAK

*Jai zoriontzuak opa dizkizue*

LEITZA

## PERURENA HARATEGIA

Hemengo zekorretan espezialitatea
Urdaitegia
Tel. 51 01 64

*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

## HERBODIETETICA BELARRA

Janari denda
Elbarren, 35 • Tel. 51 01 92
LEIZA

*Jai zoriontsuak, opa dizkizue, zorionak*

## "PITXIK"

PAPERDENDA eta
OPARIAK

*Jai zoriontsuak opa dizkizue*




*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

Elgoyen, 6
Tel. 51 03 75
LEITZA

**ZABALETA OKINDEGIA**

*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

Tel. 51 04 68 LEITZA

**TALLERES LAZCANO**

Venta y reparación de todo tipo de automóviles, maquinaria agrícola, bicicletas y motos.

*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

Gorriztaran, 41 • Tel. 51 04 04
LEITZA

SUCESIONES DE
**JOSE GOMEZ**
COMERCIO DE TEJIDOS

*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

Tel. 51 01 30

**VANPAC, S.A.**

(Vasco Navarra de Papel y Cartón)
PAPER ETA KARTOI BERRESKURAPENA

*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

Tolosako errepidea, 2 Km-an
Tel. 51 01 61 LEITZA

**IGNACIO ARRARAS**

Bodegón:
Vinos, Sidra y Licores
Cervezas El León y Codorniu

*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

Tel. 51 03 53

GIMNASIO



GIMNASILEKU
**OSANE**

• Sauna • Gimnasia mantenimiento • Gimnasia correctiva • Aparatos musculación • Recuperaciones

**Mens sana in corpore sano**

Elgoyen, 4 LEITZA

**AZPIROZ ETXEA**
**JANTZI DENDA**

*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

Tel. 51 02 46 LEITZA

CHAPA-PINTURA-KARROZERIAK
**GURIA**
(P. KALDERON)

"Reparación de vehículos. Pintado en cabina, secado al horno" Pinturas nacaradas-perladas

*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

Tel. 51 02 55 LEITZA

**GREGORIO SAGASTIBELZA**

Constructor y Albañilería en general

*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

Tel. 51 00 59 LEIZA

FOTO

**MUGICA**

ARGAZKIAK

C/ Obispo Huarte
Tel. 51 04 40
LEIZA




Reparación de vehículos
Chapa sistema CAR-O-LINER
Pinturas HERBERTS STANDOX
Mantenimiento y revisiones

**TALLERES MIKEL**



SERVICIO GRUA • SERVICIO OPEL
TEL. MOBIL (908) 67 20 41
Ctra. Leitzalarrea, s/n.
☎ 61 08 73 • LEITZA

**CARLOS SAGASTIBELTZA VILLANUEVA**

ARQUITECTO TECNICO

Proyectos • Presupuestos • Reformas • Control de Obras • Mediciones de terrenos • etc.

TELEFONOS
Oficina: 61 06 77
Domicilio: 51 03 90
Movil: (908) 17 96 60

HOTEL

**BASA-KABI**

bautizos • amplios comedores • salones • amplio parking • piscina• alquiler de caballos

Alto de Leiza • Tel. (948) 51 01 25
31877 LEITZA

• cocina selecta • comidas de empresa • bodas y banquetes • comuniones y

ITURGINTZA

**GAZTELU, S.C.L.**

- INSTALACIONES DE CALEFACCION
- FONTANERIA EN GENERAL Y GAS

Elgoien, 32
Tel. 51 00 86
Fax 61 08 56

31880 LEITZA (Navarra)

**LEITZARRA TABERNA**

IREKITA GOIZEKO 7,30ETATIK
Ongi ibili kanpotarrak eta ongi pasa bertakoak

OHARRA:
Pestak ondoren hiru hilabetez itxita egongo da berritzeko
Tel. 51 03 52 • LEITZA




**TRANSPORTES**

TALLER DE CANTERIA • TRABAJOS EN PIEDRA Y MARMOL • REVESTIMIENTOS DE FECHADAS DE PIEDRA • ARCOS, ZOCALOS, ESCALERAS • FOGONES "ESTILO VASCO" • CRUCES Y LAPIDAS • CHIMENETAS Y TODA CLASE DE TRABAJOS EN PIEDRA

*Les desea Felices Fiestas*

Tels. Taller 51 04 47 y Domicilio 51 01 11

LEIZA (Navarra)

# OIALDE TABERNA

• BAZKARIAK, BAZKALAURREKOAK ETA OTARTEKOAK
• KAFEAK, ARDOAK ETA LIKOREAK

*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

Tel. 51 00 77

LEITZA



# ETXE - TRESNAK

ARGI - INDAR INDUSTRIALA
HIFI - TELEBISTA - BIDEO

RADIO eta TELEBISTEN KONPONKETA
TELEBISTARAKO ANTENA eta PARABOLIKA JARTZEA
ELECTRICIDAD INDUSTRIAL
T. V. - HIFI - VIDEO

REPARACION DE RADIOS - TELEVISORES
INSTALACION DE ANTENAS DE T.V. Y PARABOLICAS

*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

Tel. 51 02 08 - 51 01 81

LEITZA

Leitza



postak













